

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

FISKALTZA INSTRUKZIO LANETAN. ORAINDIK ARGITU GABEKO EZTABAIDA

Gradu Amaierako Lana

Zuzenbideko Gradua

2020/2021 ikasturtea

Egilea: Sara El Oufir Ayyad
Zuzendaria: Goizeder Otazua Zabala

AURKIBIDEA

Laburdurak.....	3. or.
Sarrera.....	4. or.
I. MINISTERITZA FISKALAREN IZAERA ETA FUNTZIOAK	
1.1 Ministeritza Fiskalaren kontzeptura hurbilketa.....	6. or.
1.2 Ministeritza Fiskala ordena zibilean.....	7. or.
1.3 Ministeritza Fiskala adingabeen jurisdikzioan	8. or.
1.4 Ministeritza Fiskala zigor prozesuan	14. or.
II. MINISTERITZA FISKALA ERAENTZEN DUTEN PRINTZIOAK ETA HAIEN INGURUKO EZTABAIDAK	
2.1 Ministeritza Fiskalaren jardueraren inguruko printzipioak.....	17. or.
2.2 Antolaketa printzipioak	18. or.
2.3 Ministeritza Fiskalaren izaera juridikoa	20. or.
2.3.1 Ministeritza Fiskala Botere Exekutiboaren organo gisa	20. or.
2.3.2 Ministeritza Fiskala Botere Judizialaren organo gisa.....	21. or.
III. AZKEN URTEETAN LEGEGILEAK MFREN FUNTZIOAREN INGURUAN AURKEZTUTAKO PROIEKTUAK	
3.1. PKL erreformatzeko 2011ko Aurreproiektua eta Zigor arloko prozesu kodearen 2013ko zirriborroa.....	24. or.
3.2. Prozedura Kriminalaren Legea erreformatzeko 2020ko Aurreproiektua.....	33. or.
IV. FISKAL INSTRUKTOREA ZIGOR PROZESUAN ETORKIZUNERAKO	
4.1. Instrukzio funtzioaren aldeko argudioak.....	37. or.
4.2. Instrukzio funtzioaren kontrako argudioak	41. or.
V. ONDORIOAK	45. or.
VI. BIBLIOGRAFIA	47. or.
6.1. Liburuak eta aldizkariak	
6.2. Araudia	
6.3. Jurisprudentzia	
6.4. Webgrafia	

LABURDURAK

ART.: Artikulua

AZELO: Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duen Lege Organikoa

BJLO: Botere Judizialaren Lege Organikoa

EFN: Estatuko Fiskal Nagusia

EK: 1978ko Espainiako Konstituzioa

KAE: Konstituzio Auzitegiaren Epaia

MF: Ministeritza Fiskala

MFEO: Ministeritza Fiskalaren Estatutu Organikoa

Or.: Orria

PKL: Prozedura Kriminalaren Legea

PZL: Prozedura Zibilaren Legea

ZK.: Zenbakia

SARRERA

Ministeritza Fiskalaren figura oso eztabaidatsua izan da Espainian urteetan zehar. Eztabaida eman da batez ere MFk dituen funtzioen inguruan, eta baita honi prozesuaren instrukzioa esleitzearen inguruan, orain arte instrukzio epailearen esku egon dena. Horregatik lan honetan azalduko da Ministeritza Fiskalak (MF) duen papera zigor ikerketaren baitan eta PKLren inguruan legegileak egin nahi izan dituen eraldaketa edo erreforma ezberdinak.

Azken urteetan egindako erreformen eta erreforma proposamenen ondorioz lortu izan nahi da MFren funtzioak indartzea instrukzio fasean, uste delako abantaila handiak lortuko direla modu honetan. Hala ere, adingabeen zigor prozesuan ez bezala, oraindik ez da lortu MFri ematea funtzio hori zigor prozedura arruntan. Horregatik, lan honetan ere aztertuko da nola funtzionatu duen MF instruktorea adingabeen prozesuan eta zer pauso eman diren hori modu eraginkor batean funtzionatzeko. Modu honetan, ikusteko ea posiblea den etorkizunean MFk eramatea zigor prozesuaren instrukzioa, jakinda zeintzuk diren honek dakartzan abantailak eta desabantailak, eta kontuan hartuz eredu hau jada ezarrita dagoela adingabeen prozeduran. Beraz, laburbilduz, helburua da aztertzea MFren eskumenak zabaldu daitezkeen adindunen prozeduran.

Horretarako, lehenik eta behin, hasiko naiz Ministeritza Fiskalaren erakundea gaur egun Espainian nolakoa den eta honek dituen egitekoak zeintzuk diren azaltzen; jarraian, bere ezaugarriekin eta printzipioekin zer eztabaida planteatzen diren landuko dut eta baita, urteetan zehar proposatu diren aurreproiektu eta erreformak zeintzuk diren azalduko ditut; eta azkenik, doktrinarekin MF instruktorearen eredia nola eraiki nahi den aurkeztuko dut, kontuan izanda, doktrinaren alde bat eredu honen alde dagoela, eta bestea aldiz, honen kontra.

Gure ordenamendu juridikoan¹, hainbat eragilek parte hartzen dute ikerketa kriminalean. Alde batetik, Instrukzioko Epailea dago, ikerketaren zuzendaria dena. Bestetik, MF, nagusiki akusazio publikoa egiten duena auzitegiaren aurrean, eta, azkenik, Polizia judiziala dugu, zeinak delitua ikertzeko, delitugilea identifikatu eta jazartzeko eta, hala dagokionean, hori ziurtatzeko betebeharra duen, dagokion atestaturia edo txostena eginez. Atestatu edo txosten hori Instrukzioko epaileari igorri beharko dio, eta MFri kopia bat emango dio².

¹ LEAL MEDINA, Julio. " Un estudio sobre el anteproyecto de ley enjuiciamiento criminal. Un nuevo proceso penal", *Docta ignorancia digital*, 4. zk., 2013, 14-15 or.

² Prozedura Kriminalaren Legearen 284. artikulua, sumario-prozeduran, ezartzen du Polizia Judizialak Fiskaltzari delituarekin lotuta egindako eginbideen berri emateko betebeharra duela. Era berean, Prozedura Kriminalaren Legearen 772.1 artikulua, prozedura laburtuan, jasotzen du Poliziak egingo duela atestaturia, legearen arau orokorren arabera, eta epaitegi eskudunari emango diola, atxilotuentzako eskuragarri jarritz, halakorik balego, eta Fiskaltzari kopia bat bidaliz.

Esan bezala, azaldutako eredu hau desagerrarazteko asmoa dago Ministro Kontseiluan onartu nahi den Prozedura Kriminalaren Lege berriarekin, ondoren parlamentuan eztabaidatzeko³. Beraz, etorkizuneko Prozesuan, aurkezten den berritasun garrantzitsuenetako bat da zigor ikerketaren zuzendaritza osoa Ministeritza Fiskalaren esku egongo dela, eta haren zerbitzura eta aginduen menpe egongo dela Polizia judiziala.⁴ Instrukzio-epaileak berme-epaile izena hartuko du, eta subjektu susmagarri jakin baten aurkako frogak egiteko eginbideak erabakitzeari utziko dio. MFri dagokio eginkizun hori, ikerketaren benetako sustatzailea izango dena, baina epaileak kontrolatuko du.

Hala ere, legegilearen nahi hori ez da berria; izan ere, MF da delitua burutzen duen adingabearen aurkako prozeduretan intrukzioa bideratzen duen organoa; hala jasotzen da Adingabeen Zigor Erantzukizun arautzen duen 5/2000 Lege Organikoan. Argi dago, beraz, Justizia ministroari aurkezteko Zigor Prozesu Berriaren Aurreproiektua prestatu duen aditu batzordeak aurrekari garrantzitsu bat duela eta esperientzia positiboa izan duela MF instruktorearen figura nabarmentzeko orduan.

³ Zigor Prozeduraren Lege Organikoa erreformatzeko 2020ko Aurreproiektua.

⁴Polizia judizialari, Konstituzioaren 126. artikuluan, delituaren existentzia ikertzeko eginkizuna ematen zaio, bai eta delitugilea jazartzea eta segurtatzea ere, eta 72 orduko gehieneko epean epailearen esku jartzen da (EKren 17.2 artikulua). Horiekin batera, Espainiako Konstituzioaren 104. artikuluan jasotzen diren eginkizunak ere baditu Poliziak, hala nola guztion oinarrizko eskubide eta askatasunak babestea eta krimena ekiditeko jardutea. Prozedura Kriminalaren Legearen 282. artikulua ezartzen du prebentzioari buruzko jarduketak egin ahal izango dituela, eta lehen eginbideak egin ahal izango dituela, konbikzio-piezak eta frogabideak jaso, aztertu eta zaintzeko, baldin eta horiek premiazkoak badira eta ezin bada gehiago atzeratu ikerketaren martxa egokirako.

I. MINISTERITZA FISKALAREN IZAERA ETA FUNTZIOAK

1.1 Ministeritza Fiskalaren kontzeptura hurbilketa

MFren erakundea beste izen batzuekin ezagutzen zen Erdi Aroan, hala nola “Erregearen gizona” edo “Prokuradore Fiskala”. Hauek erregearen interesak defendatzen zituzten 1870. urtera arte, Botere Judizialaren Legea onartu zenean (BJLO).

1881eko eta 1882ko prozedura-legeek zigor prozeduretan eta zibiletan kokatzen dute erakunde hau, nahiz eta Estatuko abokatuarekin parekatu zein alderdi gisa hartu. Zigor prozesuak arautzen dituen arauak posizio berezi batean kokatzen du, gainerako alderdiengandik bereizten duen posizio batean hain zuzen ere.

Karrera Fiskala 1926ko ekainaren 21eko Errege Dekretuaren bidez sortu zen, karrera autonomo gisa. Fiskaltzaren eginkizuna da Gobernuak Botere Judizialarekiko harremanetan ordezkatzeko eta legeak betetzen direla zaintzea, zigor akzioa egikaritzuz interes publikoak defendatzeko, ordena publikoa mantentzeko eta interes soziala asetzeko.

Demokraziaren ezarpenarekin eta honen isla 1978ko Konstituzioan, MF arautzen da erakunde autonomo gisa, Botere Judizialean integratua, eta organo propioen bidez jarduten duena (autonomia organikoa), Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren mende egon gabe (autonomia funtzionala). Desagertu egiten da Gobernuaren eta auzitegien arteko komunikazio-organoa gisa duen konfigurazioa, eta hautsi egiten da gobernuarekiko mendekotasuna; izan ere, Gobernuak Fiskaltzari soilik eskatu ahal izango dizkio interes publikoak defendatzeko jarduketak, eta Estatuko Fiskal Nagusia izango da, Salako Fiskalen Batzarrari entzun ondoren, haren bidezkoatasunari buruz askatasunez erabakiko duena⁵.

Ministeritza Fiskala Estatuko Fiskal Nagusiak eta Karrera Fiskaleko funtzionarioek osatzen dute. Erakunde hau Espainiako Konstituzioaren 124. artikuluan⁶ arautzeaz gain, berezko estatutua du, Fiskaltzaren Estatutu Organikoa arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legea hain zuzen ere, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 541. artikulurekin⁷ batera.

Fiskalak, magistratuak ez bezala, organikoki integratzen dira Justizia Ministerioan, eta ez dira independenteak; aitzitik, legezkoatasunaren, inpartzialtasunaren eta Estatuko

⁵ Honako esteka honetan eskuragarri: <https://www.fiscal.es/historia> (azken kontsulta: 2020-04-26)

⁶ EK 124. art.: “1.- Fiskaltzaren eginkizuna da, bestelako organoek dituzten zereginen kalterik egin gabe, justiziaren ekintza bultzatzea, legezkoatasuna, herritarren eskubideak eta legeak babestutako interes publikoak defendatzeko, ofizioz edo interesdunek hala eskatuta; haren eginkizuna da, orobat, auzitegien independentzia zaintzea eta auzitegiotan gizarte- interesa ase dadin sustatzea. 2.- Fiskaltzak berezko organoen bitartez betetzen ditu bere eginkizunak, ekintza-batasunaren eta hierarkia-mendekotasunaren printzipioekin bat etorritik, eta, edozein kasutan, legezkoatasun- eta inpartzialtasun-printzipioen menpe. 3.- Legeak arautuko du Fiskaltzaren estatutu organikoa. 4.- Erregeak izendatuko du Estatuko Fiskal Nagusia, Gobernuak hala proposatuta, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari entzun eta gero.”

⁷ BJLO 541. art.: “1. Beste organo batzuei emandako eginkizunen kalterik gabe, egiteko hau du Fiskaltzak: Justiziaren ekintza sustatzea, ahaleginean berma ditzan legezkoatasuna, herritarren eskubideak eta legeak babestutako interes publikoak, bai ofizioz bai interesatuek eskaturik, eta, orobat, auzitegien independentzia begiratzea eta haietan gizartearen interesari erantzun dakion saiakerak. 2. Bere estatutu organikoaren arabera arautuko da Fiskaltza”.

Fiskal Nagusiaren mendekotasun hierarkikoaren printzipioen arabera jarduten dute. Nahiz eta ezin diren parekatu epaileekin, karrera judizialeko kideei aplikatzen zaizkien ezintasun-, bateraezintasun- eta debeku-arrazoi berberak aplikatzen zaizkie fiskalei ere. Bientzat, sarbide sistema komuna da, oposizio bidezkoa, eta, era berean, hiru kategoriatan egituratzen dira (kidego honetan, abokatu-fiskala, aretoko fiskala eta auzitegi goreneko fiskala dira). Hala ere, bere antolaketa ezberdina da eta zertxobait konplexuagoa.

Ministeritza Fiskala organo bakarra da Estatu osorako, eta organo propioen bidez betetzen ditu bere eginkizunak, jarduera-batasunaren eta mendekotasun hierarkikoaren printzipioen arabera, betiere legezketasun- eta inpartzialtasun-printzipioei lotuta.

Esan bezala, erakundearen buruan Estatuko fiskal nagusia dago, eta Erregeak izendatuko du Gobernuak proposatuta, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari entzun ondoren. Hautagaiak ospe handiko legelari espainiarra izan behar du, eta 15 urte baino gehiago eman behar ditu lanean.

MORENO CATENAK⁸ Ministeritza Fiskala definitzen du estatu organo bat bezala, hierarkizatutako antolamendu administratibo batekin eta autonomia esparruarekin; EKren 124. artikuluan arautzen da, baina artikulua honek MFren papera zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoan zehazterako orduan era malguan egiten du, eta horrek legegileari diskrezionaltasuna ematen dio.

1.2 Ministeritza Fiskala ordena zibilean

Nahiz eta lana MFren papera zigor prozesuan zein den aztertzea den, horrek ez du esan nahi MFk ez duenik beste prozesu mota batzuetan parte hartzen, eta gainera, garrantzi handiko funtzioa betetzen du prozesu zibilean. Prozesu honetan MFk alderdi izaera har dezake, baina alderdi berezia da, interes orokorraren alde jarduten baitu beti. MFk, edozein prozesutan, batera egikaritzen ditu ordezkaritza eta defentsa, eta prozesu zibilean parte hartzearen ezaugarria da eskubide materiala xedatzeko egintzak egin ezin izatea, hala nola uko egitea edo amore ematea, baina bai prozesu-egintzak, hala nola atzera egitea.

Prozesu zibilean esku hartzeko, lege prozesalak bere parte hartzea aurreikusi behar du bereziki, eta hala gertatzen da, adibidez, Prozedura Zibilaren Legearen 749.1 artikuluan⁹. Artikulu horrek Fiskaltzaren esku-hartzea eskatzen du, eta beti alderdi izango da pertsonen gaitasunari buruzko prozesuetan, ezkontza-deuseztasunari buruzkoetan, adingabeen nazioarteko osteari buruzkoetan eta filiazioa zehaztu eta aurkaratzeari buruzkoetan. Era

⁸ MORENO CATENA, Victor. *El Ministerio Fiscal, Director de la investigación de Delitos*, Teoría y Derecho, Valentzia, 2007, 75. or.

⁹ PZL 749.1. art.: "Ezgaiketari, ezkontza-deuseztasunari, eta seme-alabatasuna zehazteari eta aurkaratzeari buruzko prozesuetan Fiskaltza beti izango da alderdi, nahiz eta berak prozesuok hasi ez eta legearen arabera alderdiren bat defendatzeko betebeharririk izan ez".

berean, nahitaez parte hartu behar du banantze- eta dibortzio-prozesuetan, ezgaiketa-epaiketetan, tutorea kargutik kentzeko epaiketetan, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea babestu nahi den prozesuetan, edo beste oinarritzko eskubideren baten jurisdikzio-babes zibila eskatu nahi den prozesuetan...

Orokorrean, alderdiren bat ezgaia, adingabea edo absente badago, berak parte hartuko du, betiere MFri badagokio hauek ordezkatzeari¹⁰.

Halaber, Ministeritza Fiskalaren Lege Organikoaren (MFEO) 3.6 eta 3.7. artikulua¹¹ dira zehazten dutenak MFri dagokiola legeak zehazten dituen prozesu zibiletan parte hartzea, interes soziala edo adingabeen eta ezgaien interesa jokoan dagoenean.

Arlo zibilean dituzten eginkizunak beste gai batzuetan ere garatzen dira: pribatutasun-eskubideen urraketa alegatzen duten prozesuetan esku hartzea eta seme-alabatasuna zehazteko eta aurkaratzeko prozesuetan esku hartzea, besteak beste.

Kasu horietan, oro har, demandatu posizioa dute eta prozesuaren fase guztietan esku hartzen dute, baina urratutako eskubideen titularrak adingabeak edo desgaitasuna duten pertsonak badira, demandatzaile gisa jardun dezakete eta hala egin behar dute. Ildo horretan, honako hau ezartzen du adingabearen babes juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 4. artikulua 2. zenbakian: "Sin perjuicio de las acciones de las que sean titulares los representantes legales del menor, corresponde en todo caso al Ministerio Fiscal su ejercicio, que podrá actuar de oficio o a instancia del propio menor o de cualquier persona interesada, física, jurídica o entidad pública."

1.3 Ministeritza Fiskala adingabeen jurisdikzioan

Nahiz eta aurrerago landuko diren, gaur egungo instrukzio-ereduak sortzen dituen gai eztabaidagarrien artean, hiru dira garrantzi berezia dutenak. Lehenik eta behin, zalantzan jarri da instrukzio-epaileak, kautela-neurriak hartzearen egokitasunari eta legezkotasunari buruzko erabakiak ematen duena eta ikertuaren oinarritzko eskubideak instrukzioan zehar mugatzen dituen edo ez erabakitzen duena, objektiboki partziala den jurisdikzio-funtzio horiek instrukzio edo ikerketa funtzioekin nahasteagatik; bigarrenik, akusazio-printzipioaren eraginkortasuna murriztu egiten da izaera inkisiboko prozesu-fase

¹⁰ Honako esteka honetan eskuragarri: https://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4slAAAAAAAAEAMtMSbF1jTAAUNjl0tztbLUouLM_DxblwMDCwNzAwuQQGZapUt-ckhIQaptWmJOcSoAKYQVJzUAAAA=WKE (azken kontsulta: 2020-04-26)

¹¹ MFEO 3.6 eta 3.7. art.: "6. Parte hartzea, legezkotasunaren eta interes publikoaren edo gizartearen interesaren defentsan, egoera zibilar buruzko prozesuetan eta legeak ezartzen dituen gainerakoetan. 7. Legeak hala eskatzen duen prozesu zibiletan esku hartzea, ohiko ordezkartza-bideak prestatzen diren bitartean, gizartearen interesa konprometitua dagoenean edo pertsona adingabe, desgaitu edo ezinduei eragin diezaieketenean".

batean, non benetako arriskua dagoen instruktoreak zuzendutako jarduketak auzialdiko jurisdikzio-organoak halakotzat baloratutako froga bihurtzeko; azkenik, instrukzio-fasearen egungo konfigurazioaren ezaugarria da geldotasuna, non ikerketaren sakontasunak eta lan-gainkargak nekez lor dezakete bidegabeko atzerapenik gabeko prozesurako eskubidea¹².

Adingabearen zigor-legeak, horren guztiaren jakitun, MFren eta epailearen paperak birdiseinatu ditu, Ministeritza Fiskalari instrukzioaren zuzendaritza esleituz, eta epaileak alderdien oinarrizko eskubideen bermatzaileak izango dira¹³.

Helduen jurisdikzioan ez bezala, non, delituaren izaera, larritasuna, ezarri beharreko zigorra... kontuan hartuta, hainbat prozedura bereiz daitezkeen, hala nola sumario arrunta, prozedura laburtua, epaiketa azkarrak, epaimahai bidezko prozedura, falten judizioa... Adingabeen jurisdikzioan, prozedura bakarra eta berdina da, egindako delitua edozein dela ere, eta urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan ezarritako eta araututako prozedura da, PKL izanik arau osagarria.

Hala ere, adindunen jurisdikzioko prozeduretan gertatzen den bezala, Adingabearen Legean ere hiru prozedura fase bereiz daitezke: instrukzio fasea, audientzia fasea eta epaiketa fasea (exekuzioarekin amaitzen dena).

MFren instrukzio funtzioari dagokionez, hainbat artikulua daude 5/2000 Lege Organikoan erreferentzia egiten diotenak funtzio honi: 6. art., 16. art., eta 23. art.

Hasteko, 6.artikuluaren arabera, MFri dagokio legeek adingabeei aitortzen dizkieten eskubideak defendatzea, bai eta haien intereserako egin behar diren jarduketak zaintzea eta prozeduraren bermeak betetzea ere. Horretarako, zuzenean zuzenduko du egitateen ikerketa, eta aginduko du polizia judizialak egin ditzala egitate horiek egiaztatzeko eta adingabeak horietan izan duen parte hartzea konprobatzeko beharrezkoak diren jarduketak, prozedura sustatuz.

Gainera, 16.1. artikulua ezartzen du MFri dagokiola lege honen 1. artikulua aipatutako egitateen ondoriozko prozeduren instrukzioa egitea. Eta 16.2. artikulua arabera, Fiskaltzak "egokitzen jotzen dituen eginbideak egingo ditu, hala badagokio, egitatea eta adingabeak egitatean duen erantzukizuna egiaztatzeko".

Azkenik, 23. artikuluari jarraituz, MFren instrukzio-jardunaren xedea izango da adingabeak egitateetan izan duen parte-hartzea baloratzea, haren jokabideak merezi duen gaitzespena adierazteko, bai eta hezkuntza- eta zehapen-neurri zehatzak proposatzea ere, egitatearen eta egilearen inguruabarretara egokituta, eta batez ere, adingabearen beraren interesari egokituta.

¹² GIMENO SENDRA, Vicente. *El Ministerio Fiscal-director de la instrucción*, lustel, Madril, 2006, 50. or.

¹³ GIMENO SENDRA, Vicente. "El proceso penal de menores", *Diario La Ley*, 5386. zk., 2001, 1. or.

Bestalde, argi geratu behar da, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2000 Zirkularrak¹⁴ adierazten duen moduan, MFren eta Adingabeen Epailearen arteko harremana ez dela hierarkikoa.

Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duen Lege Organikoaren (AZELO) arabera, Ministeritza Fiskalari dagokio instrukzio eginbideen praktika adostea, egitate zigorgarria ikertzera zuzenduta daudenak eta baita adingabearen parte hartzea egitate horretan, hau da, berari dagokio ahozko epaiketa prestatzearen funtzioa edo epaileari artxibatzea proposatzea. Ministeritza Fiskalean bi rol biltzen dira: prozeduraren instruktore izatea eta ahozko epaiketan alderdi akusatzailea izaten jarraitzea, *ius puniendia* egikaritzuz interes sozialaren defendatzaile gisa¹⁵.

Baina funtzio klasiko horiekin batera, AZELOren testutik beste bat ondorioztatzen da, inputatua bergizarteratzeko eta biktima babesteko helburu prozesal penalak bere gain hartzera bideratua, hau da, "Bitartekari" izateko eginkizun berria, konponbide azkarra lortzen laguntzera bideratua, bai Estatuaren eta inputatuaren arteko gatazka sozialetik, bai biktima eta inputatuaren artean.

Horretarako MF instrukzioaren hasieratik egon behar da interesatua adingabearen izaera ezagutzean eta kaltetuaren ondare mailan eta maila moralean eragin dituen kalteak, alderdiei eta epaileari proposatzeko zein den hobeto egokitzen den zehapena, ikertuaren eta kaltetuaren arteko adiskidetzea errazteko¹⁶.

Fiskalaren parte hartzea adingabeen prozesuari dagokionez, AZELOra jo behar da, eta 6.artikuluaren honako hau ezartzen da: Ministerio Fiskalari dagokio legeek adingabeei aitortzen dizkieten eskubideak defendatzea, bai eta haien intereserako egin behar diren jarduketak zaintzea eta prozeduraren bermeak betetzea ere; horretarako, pertsonalki zuzenduko du egitateen ikerketa, eta aginduko dio polizia judizialari egin ditzala egitate horiek egiaztatzeko eta adingabeak horietan izan duen parte hartzea egiaztatzeko beharrezkoak diren jarduketak, prozedura bultzatuz.

Era berean, eta aurretik aipatutako moduan, lege bereko 23. artikuluan honako hau jasotzen da: Fiskaltzaren instrukzio-jardunaren xedea izango da, batetik, adingabeak egitateetan izan duen parte-hartzea baloratzea, bere jokabideak merezi duen gaitzespena adierazteko, eta, bestetik, hezkuntza- eta zehapen-neurri zehatzak proposatzea, egitatearen eta egilearen inguruabarrei eta, batez ere, adingabearen beraren interesari egokituta.

Bi arauetatik atera daitekeen ondorioa da Adingabearen Zigor Legeak MFren eta Epailearen paperak birmoldatu dituela, MFri instrukzioaren zuzendaritza esleituz. Horregatik

¹⁴ Abenduaren 18ko 1/2000 Zirkularra, adingabeen zigor erantzukizun arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa aplikatzeko irizpideei buruzkoa.

¹⁵ GIMENO SENDRA, Vicente. *El Ministerio Fiscal-Director de la Instrucción*, Iustel, Madril, 2006, 52. or.

¹⁶ *Ibidem*, 55. or.

esaten da Lege-testu hori etorkizunean PKLren erreforma osoa izan litekeenaren aurrerapena izan daitekeela.

MFk dituen eskumenekin jarraituz, adierazi dezakegu hainbat funtzio dituela instrukzio fasean, exekuzio fasean eta baita erantzukizun zibilean.

Instrukzioari dagokionez, SOLETO MUÑOZ¹⁷ autoreak adierazten du 5/2000 Lege Organikoak ezarri zuela MFri dagokiola prozeduraren instrukzioa eramatea eta adingabearen interesa defentsatzea prozesuan. MFen instrukzioa egoera honetan Instrukzio Epaileak adindunen prozesuan duenaren antzekoa da. Nahiz eta MFri dagokion prozesuaren instrukzioa, adingabeen epaileari dagokio oinarrizko eskubideak mugatzen dituzten erabakiak hartzea eta baita kautela neurriak ere (MFk eskatuta edo bertaratutako alderdiren baten eskariz).

Aipatutako legearen arabera, MFren beste eskumenetako bat da espedienteari hasiera ematea¹⁸, funtzio hauek bilduz: egitateen ikerketa zuzentzea (6. art.), polizia judiziala zuzentzea ikerketan (6. art.), prozedura bultzatzea (6. art.), espedienteari hasiera ematea (16. art.), adingabeari deklarazioa hartzean bera presente egotea (17. art.), espedienteari hasiera ematearen erabakia atzera botatzea (18. art.), kautela neurriak hartzeko eskaera (17. art.), espediente artxibatzea adiskidetzegatik (19. art.), alderdiek eskatutako eginbideen onarpenari buruz erabaki (26. art.) eta oinarrizko eskubideak mugatzen ez dituzten eginbideak gauzatu (23. art.).

Adingabe batek delitu bat burutzen duenean edo atxilotua denean, egiten den lehen gauza deklarazioa hartzea da.

Fase honetan, MFk eskatuz gero adingabeari deklarazioa hartu ondoren, agerraldi bat egiten da zehazteko kautela neurriren bat hartu behar den ikerketa egiten den bitartean. Era berean, fase honetan beharrezko eginbideak egiten dira, MFk erabakitakoak eta adingabearen abokatuak eskatutakoak, betiere MFk onartu baditu alde aurretik, egitateak argitzeko eta epaitu ahal izateko.

Prozedura bi modutan has daiteke: MFren salaketa bidez edo adingabea atxilotzerakoan.

Lehenengoari dagokionez, kasu horretan MFren papera izango da zehaztea zer neurri hartu behar den, dauden aukera ezberdinen artean: 1) kasua artxibatu egitateak ez badira delitu gisa tipifikatzen edo ez bada egilea ezagutzen, 2) kasuan atzera egin delitu ez hain larria bada edo falta bat bada, indarkeria edo larderia ez bada egon eta adingabeak ez badu aurretik izaera bereko beste egitate batzuk burutu, 3) salaketaren izapidetzea onartu eta adingabearentzat espediente bat ireki, berari jakinaraziz eta baita egitateengatik kaltetua izan denari (biktima) zein epaileari.

¹⁷ SOLETO MUÑOZ, Helena. *Sujetos intervinientes en el Proceso Penal de Menores*, Tirant Monografías, Madril, 2009, 2. eta 3. or.

¹⁸ Ibidem, 50. or.

Prozesua hasteko bigarren moduan, adingabearen atxiloketa, MFren papera honako hau da: 5/2000 Lege Organikoaren 17. artikulua arabera, poliziak adingabe bat atxilotzen duenean MFren esku jarri behar du 24 orduko gehienezko epean.

Behin MFren esku jarri dela, honek beste 48 ordu izango ditu erabakitzeke atxilotuaren askatasunari, atzera egiteari edo espedientearen hasierari buruz.

Epaiketari dagokionez, MFk algezio idazkia (akusazioa) egingo du eta abokatuari emango zaio kopia bat 5 eguneko epea defentsa idazkia egiteko.

Fase honetan MFk Epaitegiari eskatu ahal izango dio jarduketan artxiboa alderdien arteko adiskidetzeari lotu bada edo kaltea konpontzeko aukera badago delitu ez hain larrien kasuan.

Exekuzioaren fasea epaileak kontrolatzen du, nahiz eta dagokion organo publiko autonomikoak aurrera eramanean. MFren funtzioa exekuzioan antzekoa da adindunen prozedurarekin alderatuz gero. MFren funtzioa denez adingabearen interesak defendatzea eta berrezitzea, fase honetan adingabearen interes gorena izan beharko du kontuan.

EK-k jurisdikzio eskusibotasunaren printzipioa ezartzen du, bere eduki positiboa (epaitu eta epaitutakoa betearazi, 117.3. art.) eta muga negatiboak finkatuz (epaitegi eta auzitegiek aurreko paragrafoan aipatutako eginkizunak besterik ez dituzte beteko, bai eta legeak beren beregi edozein eskubide bermatzeko ematen dizkienak ere).

Jurisdikzio-eskusibotasunaren printzipioaren azterketa positibo eta negatibo batek bi ondorio garrantzitsu ondorioztatzea ahalbidetzen du: batetik, ikerketa penalean ez dela jurisdikzio-ahalmenik gauzatzen: "Ez da epaitzen, eta ez da epaitutakoa betearazten"; eta, bestetik, ez dela beharrezkoa ikerketa penal osoan zehar esku-hartze judiziala, hau galdatuko delako konstituzionalki oinarritzko eskubideak mugatzen dituzten neurriak hartu behar direnean, eta honek esku hartze judiziala mugatuko du instrukzioan zehar. Hala ere, ez du esan nahi bere esku hartzea ukatu behar denik, baizik eta nabarmendu behar da alderdien oinarritzko eskubideen bermatzaile izan behar dela.

Legearen ikuspegitik, ikerketa MFri esleitzeak barne-koherentzia handiagoa ematen dio prozesuari, eta akusazio-printzipioa indartzen du; izan ere, instrukzio-fasearen oinarri nagusia akusazioa prestatzeko jarduera guztiak egitean datza.

Neurri honek ikerketa penalaren fasearen izapidetzea arintzen laguntzen du, MFri polizia judizialaren zuzendaritzan eta koordinazioan ahalmen zabalak esleitzen bazaizkio batez ere; izan ere, organo berean instrukzioa eta akusazio-uziaren egikaritzea bateratzen direnez, eta horren arabera garrantzirik ez duten jarduketak saihestez gain, berehala zehazten da ikerketaren amaiera, MFk erabakitzen duenean akusazioa desegokia dela, lege arrazoiengatik (egitatearen tipikotasun falta), delitua burutu delaren zantzu faltak edo pertsona zehatzen parte hartzea delituan) edo aukera printzipioa aplikatzeagatik.

Irizpide erabat prozesal bat kontuan hartuta, 5/2000 Lege Organikoak egindako rol banaketak fiskaltzari ematen dio ikerketaren zuzendaritzea, eta alderdien oinarritzko eskubideen bermatzaile funtzioa Adingabearen Epaileari ematen dio. Honen ondorioz,

epailearen inpartzialtasuna¹⁹ ziurtatzeaz gain, ikerketa-egintzak froga-egintza bihurtzeko arriskuarekin amaitzen du, froga eta erabaki pisu guztia ahozko epaiketaren fasera eramanez; modu honetan, epaileek berreskuratuko dute beraien funtzioa epaitzeko eta epaitutakoa betearazteko.

Azkenik, instrukzioa MFri esleitzeak dakarren beste abantailako bat beste probintzia batzuetako fiskaltzekin lankidetzan aritzea da, delitu konplexuak direnean eta beharrezkoa denean frogak beste lurralde batzuetan egitea edo ikerketa bera²⁰.

Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan, adingabeen zigor erantzukizuna arautzen duena, adingabeen epaileak jada ez du instrukzioa egiten, Ministeritza Fiskalari ematen zaiolako ikerketa funtzio hori.

Hala ere, horrek ez du esan nahi epailea instrukziotik kanpo gelditzen denik, baizik eta bere papera hirugarren inpartzial gisa finkatzea, bere funtzioak izanik oinarrizko eskubideak mugatzen dituzten ebazpenak hartzea, adingabeari dagokionez hartzen diren kautela neurriak, isilpeko instrukzioaren deklarazioa, ahozko epaiketaren irekiera edo artxibatzea erabakitzea, eta jakina, ahozko epaiketaren berri izatea eta dagokion epaia ematea. Era berean, berari dagokio sumario-froga-egintza aurreratuetan esku hartzea, instrukzioan izandako atzerapenak sahiestea eta desagerraraztea, eta Ministeritza Fiskalak egindako instrukzio-jarduera kontrolatzea²¹, ebatziz, alde batetik, alderdiek sor ditzaketen oinarrizko eskubideen urraketa, eta bestetik, ikerketa osatuz, alde batek hala eskatuta eta instrukzio osagarri gisa, fiskalak epaileari aurkeztu ondoren.

1.4 Ministeritza Fiskala zigor prozesuan

Fiskaltzak zeregin nabarmena du zigor prozesuaren barruan. Nahitaez esku hartu behar du, legezkoatasun-printzipioa defendatzen duelako, zigor-arloko prozesu orotan, delitu pribatu izenda daitezkeen delitu batzuetan izan ezik. PKLren 105. artikuluekin bat etorriz, MFk bidezkoztat jotzen dituen zigor akzio guztiak egikaritu behar ditu, lege horren xedapenen arabera, kausetan akusatzaile partikularra egon zein ez, salbu eta Zigor Kodeak kereila pribatuari bakarrik erreserbatzen dionean.

MFren parte hartzea instrukzio fasean oso eskasa da. Sumario fasean, MFk Instrukzio Epaileari eska diezaioke eginbide batzuk erabakitzea, bereziki PKLko 282, 284

¹⁹ GONZALEZ-CUELLAR SERRANO, Nicolas. *Proporcionalidad y derechos fundamentales en el proceso penal*, Constitución y leyes, Colex, Madril, 1990, 132. or.

²⁰ GIMENO SENDRA, Vicente. "El Ministerio Fiscal...", *op. cit.*, 55-56. or.

²¹ MARTÍN SÁNCHEZ, Ascensión. *El juez de menores en la Ley Orgánica 5/2000, de 12 de enero, de responsabilidad Penal de los Menores*, Estudios jurídicos del Ministerio Fiscal VI, Madril, 2000, 87-99. or.

eta 287. artikulutik 290. artikulura zehaztutakoak. Gainerako alderdiek ez dute egingo diren eginbideen eta hauen emaitzen berri izango, baina Fiskalak, aldiz, bai izango du hauen berri, lortu nahi delako MFak edozein momentuan ikertuaren eskubideak babestu ahal izatea.

Tarteko fasean, behin instrukzioa amaitu dela, MFren funtzioa izango da erabakitzea akzio penala mantentzea edo ez, beraz, fase honetan baloratuko da ea sumario fasean praktikaturako eginbideak nahikoak diren ahozko epaiketa irekitzeko.

Ildo horretan, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2008 Instrukzioak dio Fiskalak kausen ikuskatzaile gisa duen dimentsiotik, ordenamenduak arautzen duela titulartasuna, akzio penalaren egikaritzea eta instrukzio-funtzioaren egikaritzea, haren garrantzi konstituzionala nabarmenduz, zuzenean eragiten dielako Estatuaren eta herritarren arteko harremani. Horrela, Epaileri instrukzioa egiteko ahala ematen bazaio, fiskalari dagokio, zigor akzioa sustatzeaz gain, instrukzio hori ikuskatzea eta horren legezkotasuna kontrolatzea.

Prozedura laburrean, zehazki PKLko 773. artikuluan esleitzen zaio Fiskalari instrukzio funtzioak.

7/1988 Lege Organikoaren Aurreproiektuak aurkezten zituen berrikuntza nagusienetarikoa bat zen MFko kideen funtzioak handitzea, instruktore paralelo bat bezala arautuz, baina muga batzuekin, hala nola espetxetzea edo behin behineko askatasuna erabakitzeko debekuarekin²².

PKLko 773.1 artikuluan ezarritako funtzioei dagokionez, zortzi eskumen esleitzen zaizkio MFri²³.

- Hasteko, beharrezkoak diren ekintzak osatuko ditu legearen arabera akzio penal eta zibilak egikaritzeko.
- Ikertuaren eskubideak eta bestelako berme prozesalak bermatzen ditu.
- Biktimaren eta delituagatik kaltetuak izan direnen eskubideak babestuko ditu.
- Izapidetze prozesala sustatzeaz eta sinplifikatzeaz arduratzen da bereziki, baina sustapen hau ezin da oztopo bat izan alderdien defentsa eskubiderako.
- MFren funtzioak betetzeko, honek agindu orokorrak edo partikularrak eman diezaioke Polizia Judizialari.
- Era berean, dituen forgabideak emateko funtzioa du, edo epaileri eskatzea frogabide horiek gauzatzea.
- Ikertuaren ikerketa bermatzeko, honen presentzia fisikoa edo bere ondasunak segurtatzeko kautela neurriak eskatu ahal izango ditu, edo jada hartutako neurriak kentzea.

²² MUERZA ESPARZA, Julio Javier. *El proceso Penal Abreviado*, Aranzadi, Navarra, 2002, 43. or.

²³ Ibidem, 44. or.

- Azkenik, ikerketaren amaiera eskatuko du erabakitzen duenean beharrezkoak diren jarduketak egin direla zigor akzioaren egikaritzari buruz erabakitzeko.

MFren bigarren funtzioari dagokionez, MFren eginbide informatiboak edo aurretiazko ikerketa, PKLko 773.2. artikulura²⁴ joko dugu.

Beraz, MFk legez kontrako egintza baten berri duenean, bere ustez garrantzitsuak diren ikerketa egintza guztiak gauzatu ahal izango ditu, zehazteko nor edo nortzuk diren delitu egintzaren erantzuleak. Horretarako, MFEOn 5.2. artikuluko²⁵ mugak kontuan izan beharko ditu.

Espainiako Konstituzioak hainbat eginkizun esleitzen dizkio MFri, EKren 124. artikuluan jasotzen diren printzipioen arabera; artikulua horretan jasotzen dira bere jarduera garatzeko baliatzen dituen lege-parametroak. EK 124. artikulua ezartzen du MFren eginkizun nagusia dela justiziaren akzioa sustatzea legezkotasunaren, herritarren eskubideen eta interes publikoaren defentsan, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, baita independentzia judiciala zaintzea eta interes soziala asetzen saiatzea. MFk bere eginkizunak beteko ditu organo propioen bidez, jarduera batasunaren eta mendekotasun hierarkikoaren printzipioen arabera, eta inpartzialtasun- eta legezkotasun-printzipioei lotuta.

Ministeritza Fiskalaren estatutu organikoan jasotzen dira bere funtzioen oinarri diren materia penalak. 24/2007 Lege Organikoaren bidez, nabarmen handitu ziren MFren funtzioak eta hainbat lege aldaketen ondorioz, MFk ahalmen eta eginkizun gehiago hartu ditu instrukzio penalaren fasean, berari esleitzuz hasiera batean instrukzio epailearenak ziren funtzioak, salaketak jasotzeraino. PKLren 262.artikuluaren arabera, beren kargu edo lanbideagatik delitu publikoren baten berri dutenek berehala salatu beharko dute MFri, auzitegi eskudunari, instrukzio-epaileari... Era berean, salaketak jasotzeko aukera bere Estatutu Organikoaren 5.1 artikuluan jasotzen da.

Ez hori bakarrik, inputatuari eta lekukoei deklarazioa har diezkaieke, edo polizia judicialari agintzea egitatei buruzko hainbat ikerketa-jarduketa egiteko, baita susmagarria den pertsona atxilotzea ere.

²⁴ PKLko 773.2 art.: "Cuando el Ministerio Fiscal tenga noticia de un hecho aparentemente delictivo, bien directamente o por serle presentada una denuncia o atestado, informará a la víctima de los derechos recogidos en la legislación vigente; efectuará la evaluación y resolución provisionales de las necesidades de la víctima de conformidad con lo dispuesto en la legislación vigente y practicará él mismo u ordenará a la Policía Judicial que practique las diligencias que estime pertinentes para la comprobación del hecho o de la responsabilidad de los partícipes en el mismo. El Fiscal decretará el archivo de las actuaciones cuando el hecho no revista los caracteres de delito, comunicándolo con expresión de esta circunstancia a quien hubiere alegado ser perjudicado u ofendido, a fin de que pueda reiterar su denuncia ante el Juez de Instrucción. En otro caso instará del Juez de Instrucción la incoación del procedimiento que corresponda con remisión de lo actuado, poniendo a su disposición al detenido, si lo hubiere, y los efectos del delito. El Ministerio Fiscal podrá hacer comparecer ante sí a cualquier persona en los términos establecidos en la ley para la citación judicial, a fin de recibirle declaración, en la cual se observarán las mismas garantías señaladas en esta Ley para la prestada ante el Juez o Tribunal. Cesará el Fiscal en sus diligencias tan pronto como tenga conocimiento de la existencia de un procedimiento judicial sobre los mismos hechos."

²⁵ Oinarrizko eskubideak ez mugatzea; kautela neurriak ez hartzea.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta fiskalak bere gain hartu ikerketa-funtzioen gehikuntza hori, egia da instrukzio-epaileari aurkeztu behar diola jarri den salaketa eta egindako eginbideen berri eman behar diola berehala, eta betebeharrak agerian uzten dute jurisdikzio-organoa dela Espainiako ikerketa kriminalaren benetako zuzendaria, eta horrek, praktikan, MF dekorazio-figura bihurtzen duela, ikerketa kriminala agindu eta ikuskatzerako orduan²⁶.

²⁶ LEAL MEDINA, Julio. "Un estudio sobre el anteproyecto...", *op. cit.*, 16-17. or.

II. MINISTERITZA FISKALA ERAENTZEN DUTEN PRINTZIPIOAK ETA HAIEN INGURUKO EZTABAIDAK

2.1 Ministeritza Fiskalaren jardueraren inguruko printzipioak

Espainiako Konstituzioaren 124. artikuluan jasota daude zer printzipio antolatzaile eta funtzionalen bidez zuzendu behar den Ministeritza Fiskalaren jarduera. Ministeritza Fiskalaren Estatutu Organikoaren 2. artikuluan eduki hori errepikatzen da, eta hauen arabera Ministeritza Fiskalak organo propioen bidez betetzen ditu bere eginkizunak, jarduera batasunaren eta mendekotasun hierarkikoaren printzipioen arabera, eta, nolana ere, legezkotasun- eta inpartzialtasun-printzipioei lotuta²⁷.

Instrukzio-fasearen ofizialtasunak berekin dakar legezkotasun-printzipioaren indarraldia, hau da, arauen aplikazioaren aginduzko izaera eta alderdiek xedatzeko inolako tarterik ez izatea. Ofizialtasun printzipioak suposatzen du De la Oliva Santos²⁸ autorearen arabera, prozesua hasi, garatu eta amaitu egin behar dela, aginduzko lege-arauetan xedatutakoaren arabera, interes publikoa babesteko beharraren arabera, inolako subjektu juridikoren xedapen-boterearen mende jarri gabe, haien eskubide eta interes legítimoak babesteari dagokionez. Hori dela eta, delitu-itxura duen gertaera orok prozesu baten hasiera ekarri behar du.

Legezkotasun printzipioarekin jarraituz, zigor-arloko prozesuaren esparruan, ez dira aplikagarriak transakzioaren, uko egitearen, atzera egitearen edo amore ematearen figurak. Prozedura zibilean aldiz, horiek bai onartzen dira, zehazki, PZLko 19. artikulutik 22. artikulura. Honek esan nahi du alderdiek aukera dutela prozesu zibilaren objektua xedatzeko, haien eskubideak egikaritzuz. Zigor prozesuan, berriz, delituzko jokabideen jazarpenean eta zehapenean dagoen interes publikoaren garrantziak eragotzi egiten du jokoan dauden ondasun juridikoen babesa aldean borondate askearen mende geratzea²⁹. Horrek ez du esan nahi ez dagoenik tarte bat aldean arteko akordioa lortzeko, betiere, lege esparruaren barne egiten bada.

Beraz, MFEoren 6.artikuluan jasota dagoen legaltasun printzipioak suposatzen du Konstituzioari eta legeei soilik lotuta jarduten dutela, eta ez direla irizpide politiko, ekonomiko edo bestelakoetan oinarritzen. Zuzenbidearen aplikatzaileak dira, legeek merezi duten iritzi pertsonal edo profesionala alde batera utzita, horiek onartzea eta aldatzea legegileari

²⁷ LANZAROTE MARTÍNEZ, Pablo. *La autonomía del Ministerio Fiscal en el proceso penal y la reforma de su estatuto orgánico*, La ley, Madril, 2008, 265. or.

²⁸ DE LA OLIVA SANTOS, Andrés. *Derecho procesal penal*, Editorial Universitaria Ramon Areces, Madril, 2007, 32. or.

²⁹ GARCÍA-PANASCO MORALES, Guillermo. "La reforma del proceso penal: hacia un verdadero modelo de fiscal investigador", TFG tesis doctoral, Universidad de las Palmas de Gran Canaria, 2016.

baitagokio. Hori botere-banaketaren funtsezko bermea da, edozein sistema demokratikoren oinarria³⁰.

MFren figura eta haren jarduna definitzen duen printzipioa inpartzialtasunarena da, MFEoren 7. artikuluan jasotzen dena, non ezartzen den MFk objektibotasun eta independentzia osoz jardungo duela agindutako interesak defendatzeko. Hau da, beraien jarrera ez dagoela legea betetzen dela bermatzea ez den beste interes baten mende. Inpartzialtasuna hau ez da baldintzatzen nazio lurralde osoan jarduera koordinatua egin behar izatearekin, beharrezkoa dena herritarren segurtasun juridikoa bermatzeko eta legearen aplikazioan berdintasuna bermatzeko³¹.

2.2 Antolaketa printzipioak

Administrazio zuzenbidearen ikuspegitik, mendekotasun hierarkikotzat ulertu behar da “goiko organoek duten ahalmena beheko organoen jarduerak zuzentzeko, ikuskatzeko eta ordenatzeko, mota ezberdinetako botereen bidez, hala nola, zehatzaileak, agintzekoa eta arautzailea”. Hauen artean bereizten da agintzekoa, hau da, goiko organoak ahalmena izatea bere borondatea inposatzeko beheko organoari.

Beraz, laburbilduz, esan dezakegu mendekotasun hierarkikoa dela goiko organoek duten ahalmena aginduak eta instrukzioak emateko beheko organoari eta azken hauek aginduak betetzeko betebeharra dute³².

MFri dagokionez, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren urtarrilaren 30eko 1/1987 Instrukzioaren arabera, Fiskalak bete beharko ditu goiko organoak emandako instrukzioak, mendekotasun hierarkikoaren printzipioari jarraituz.

Beraz, printzipio honen arabera, “Ministeritza Fiskala osatzen duten guztiek Estatuko Fiskaltza Nagusiaren menpe daude, eta azken horiek zuzendaritza eta aginte botere batzuk dituzte: kontsultak ebatzea, agindu orokorrak (zirkularrak) edo zehatzak (instrukzioak) ezarri, Fiskalen arteko eskumen gatazkak ebatzea, beheko organoen irizpideak aldatu edo ezabatu, etab.”³³.

MFren mendekotasun hierarkikoaren printzipiotik honako hau ondoriozta daiteke: Hasteko, printzipio konstituzionalaren izaera du, eta horrek garrantzi handia du hura aldatzeko eskakizunetan eta printzipio hau garatzeko eman den legeria betetzeko premian.

³⁰ Honako esteka honetan eskuragarri: <https://www.lawyerpress.com/2020/05/27/los-principios-de-actuacion-del-ministerio-fiscal/> (azken kontsulta: 2021-04-05)

³¹ Honako esteka honetan eskuragarri: <https://www.lawyerpress.com/2020/05/27/los-principios-de-actuacion-del-ministerio-fiscal/> (azken kontsulta: 2021-04-05)

³² LANZAROTE MARTÍNEZ, Pablo. “*La autonomía del Ministerio Fiscal...*”, *op. cit.*, 264-265. or.

³³ *Ibidem*, 266. or.

Bigarrenik, legezketasun- eta inpartzialtasun-printzipio funtzionalen mendeko izaera du, eta, beraz, printzipio horiekiko izaera instrumentala du.

Mendekotasun hierarkikoa eta jarduera batasuna dira MFri konstituzionalki esleitutako funtzioak betetzera bideratuta daudenak; funtzio horiek dira EK 124. artikulua arabera, "Legezketasuna, herritarren eskubideak eta legeak babestutako interes publikoa defendatzea, ofizioz edo interesdunek eskatuta, bai eta auzitegien independentzia zaintzea eta haien aurrean interes soziala betetzen saiatzea ere". Mendekotasun hierarkikoari esker eta jarduera batasunaren bidez, Legea inpartzialki eta uniformeki aplikatu ahal izango da lurralde osoan.

Menpekotasun hierarkikoak baimentzen du jarduera batasuna, zeinaren bidez legaltasunaren defentsa inpartziala lortzen da herrialde osoan. ZARAGOZA AGUADOK³⁴ dioen moduan, MFren funtzionamendua eta antolaketa arautzen duten printzipio konstituzionalak bateragarri egitea (legaltasuna eta inpartzialtasuna alde batetik, eta bestetik, jarduera batasuna eta menpekotasun hierarkikoa), hau da, legearen defentsa ikuspegi inpartzial batetik eta hierarkizatutako barne-egitura baten bidez soilik lor daitekeen jardun uniformearen bidez egitea, horixe da erakunde honetako kide garenok egunez egun bete behar dugun ezinbesteko zeregina.

Beraz, MFk nahitaez egokitu behar du bere akzioa inpartzialtasun eta legaltasun printzipioetara eta azkio hori zuzendu interes sozialaren defentsara eta eskubideen babesera, banakakoak nahiz kolektiboak. Helburu hauek lortzeko menpekotasun hierarkikoaren eta jarduera batasunaren printzipioak aurkitzen dira, herritar guztiei modu berdinean aplikatzeko legea. Laburbilduz, menpekotasun hierarkikoak baimentzen du jarduera batasunaren printzipioa mantentzea, eta honekin legearen aplikazio inpartziala eta uniforma bermatzen da herritar guztientzat³⁵.

Azken horrekin lotuta, gai juridikoen hainbat interpretazio onartzen dituztenez, printzipio horiek ez baleude, Tarragonan egitate berarengatik urtebeteko espetxealdia eska lezake fiskalak, 6 hilabetekoa Madrilen, eta artxibatze eskatu Sevillan. Are gehiago, jarduketa bateratu bat koordinatzen ez bada, egoera hori Probintziako Fiskaltza beraren barruan gerta liteke, gai bakoitza daraman fiskalaren arabera.

Jarduketa bateratu hori lortzeko, Estatuko Fiskaltza Nagusiak hainbat gai juridikoei buruzko jarraibideak, zirkularrak eta kontsultak argitaratzen ditu, eta Probintziako Fiskaltza bakoitzean Probintziako fiskalburuak ontzat ematen ditu instrukzioa amaituta, jarduketekin jarraitzea erabakitzen duen autoa eman ondoren fiskalek igortzen dituzten idazkiak, bai ahozko epaiketa abiarazteko eskatuz, bai akusazio-idazkia aurkeztuz. Oniritzi hori ez da

³⁴ ZARAGOZA AGUADO, Javier Alberto. "El Consejo Fiscal: reflexiones sobre su funcionamiento, composición y competencias", *Estudios Jurídicos*, 5. zk., 2000, 563. or.

³⁵ LANZAROTE MARTÍNEZ, Pablo. "La autonomía del Ministerio Fiscal...", *op. cit.*, 278. or.

egokitasun-irizpideetan oinarritzen, baizik eta plantillako fiskal guztien jarduna koordinatzeko irizpide juridikoetan soilik; horretarako, zerbitzu-oharrak ere egin ditzake fiskalburuak³⁶.

2.3 Ministeritza Fiskalaren izaera juridikoa

Doktrinan eztabaidatsua izan da MFren izaera juridikoa, batez ere aurretik aipatutako printzipioekin lotuta. Alde batetik, ikuspegi objektibo batetik, EKko 124.1. artikulua, MFEOren 1. artikularekin³⁷ lotuta, organo honen printzipioak definitzen ditu. Zentzu honetan, MF alderdi inpartzial gisa aurkezten da prozesu penaletan, akzio penalaren bidez jurisdikzio jardura sustatzen baitu, legaltasuna babesteko eta akusazioa mantentzeko³⁸.

Bestalde, ikuspegi organiko eta funtzionaletik, eztabaida eta iritzi ezberdinak daude, horregatik doktrinak bi tesi kontrajarri eskeintzen ditu.

2.3.1. Ministeritza Fiskala Botere Exekutiboaren organo gisa

EKren 124.3 artikulua legeari esleitzen dio MFEOren arauketa, horregatik sortzen den ideia da MF Botere Exekutiboaren parte dela. MFEOren 29.1. artikulua Gobernuari ematen dio Erregeari proposatzeko Estatuko Fiskal Nagusiaren izendapena³⁹ eta baita karguaren amaiera erabakitzeko ahalmena (beti ere arrazoi objektiboak badaude). Era berean, MFEOren 8.1. artikulua aukera ematen dio Fiskal Nagusiari Gobernuak proposatutako jarduketa zehatz batzuk sustatzeko⁴⁰. Arau hauen edukia kontuan hartuta, doktrinaren alde batek ondorioztatzen du MF Botere Exekutiboaren organo bat dela⁴¹.

Hala ere, autore batzuk ideia hau aurkaratu dute, hala nola Gimeno Sendra. Autore honek erabilitako argudioak esateko MF Botere judizialaren organo bat dela honako hau izan da: MFren arauketa EKn VII. Tituluan jasota dago (Botere Judiziala) eta ez IV Tituluan

³⁶ Honako esteka honetan eskuragarri: <https://www.lawyerpress.com/2020/05/27/los-principios-de-actuacion-del-ministerio-fiscal/> (azken kontsulta: 2021-04-05)

³⁷ MFEO 1. art.: "*Fiskaltzaren eginkizuna da, beste organo batzuei esleitutako eginkizunei kalterik egin gabe, justiziaren akzioa sustatzea, legezketasuna, herritarren eskubideak eta legeak babestutako interes publikoa defendatzeko, ofizioz edo interesdunek eskatuta, bai eta auzitegien independentzia zaintzea eta horien aurrean gizarte-interesa asetzen saiatzea ere*".

³⁸ GIMENO SENDRA, Vicente. *Introducción al Derecho Procesal*, Colex, Madril, 2013, 209. or.

³⁹ MFEO 29.1. art.: "*Estatuko Fiskal Nagusia Erregeak izendatuko du, Gobernuak proposatuta, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari entzun ondoren (...)*".

⁴⁰ MFEO 8.1. art.: "*Gobernuak Estatuko Fiskal Nagusiari eskatu ahal izango dio auzitegien aurrean interes publikoa defendatzeko jarduketa egokiak sustatzea*".

⁴¹ GRANADOS CALERO, Francisco. *El Ministerio Fiscal (del presente al futuro)*, Tecnos, Madril, 1989, 39. or.

(Gobernua eta Administrazioa) eta gainera, MFk egintza prozesalak gauzatzen ditu, ez administratiboak⁴².

Honekin ondorioztatu dezaket EFNk Gobernuak dituen nahiekin bat egin dezakeela eta orduan ez duela era independentean jardungo, Gobernuak berarengan izan dezaeen eragina dela eta. Horretarako, beharrezkoa izango litzateke MFEO erreforma bat egitea EFN Gobernutik aske geratzeko: Gobernuak proposatutako hautagaia Kongresuaren 3 /5 izatea, mandatua 5 urtera luzatzea eta kargu hau ez amaitzea hautagaia proposatu zuen Gobernua amaitzen denean, baizik eta 5 urteko epea igaro arte.

MFren inpartzialtasunaren eta autonomiaren arteko oreka lortzeko helburuarekin eta baita bere harremana botere exekutibo eta judizialarekin (izan ere, MF Botere Judizialaren egituraren sartuta dagoen arren, salbuespenez, erakunde hau organikoki Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekiko autonomoa da), Espainiak legeak egingo ditu Europako Ministro Kontseiluko Batzordearen 2000 Gomendioari⁴³ jarraituz. Gomendio horiek, besteak beste, honako hauek dira:

- Gobernuari debekatzea MFri jarraibideak ematea kasu zehatz bat ez epaitzeko (13.f)
- MFren eta botere betearazlearen arteko harremanak legez arautzea (14)
- Gobernuak MFri eman diezazkiokeen jarraibide orokorrak idatziz eman eta argitaratu behar dira (13.c).
- MFk, beste edozein agintariren oztoporik gabe, edozein agintarik egindako delituak jazarri behar ditu, bereziki ustelkeria eta botere-abusua (16).

Gomendio hauen ildoari jarraituz, MFren independentzia eta inpartzialtasunaren aldekoak Gobernuarekiko, MFEOren erreforma nabarmentzen da, 14/2007 legearen bidez egindakoa.

Lege honek MFren autonomia indartzen du EFNren izendapena eta karguaren amaieraren eraientza aldatzerakoan. EKren 124. 4. artikulua errespetatuz, ezartzen du Erregeak Gobernuak proposatutako EFN izendatu aurretik, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrari entzun behar zaiola eta hautagaia Diputatuen Kongresuaren Batzordearen aurrean agerraldi bat egin behar du, bere merituen eta egokitasunaren inguruan balorazioa egiteko.

Era berean, erreforma honekin karguaren amaiera erabakitzeko arrazoi objektibo batzuk zehazten dira, modu horretan Gobernuak ez du askatasuna izango: bateraezintasuna edo legeak ezarritako debekuren bat, eskaera propioa, funtzion ezbetetze etengabea edo larria, ezgaitasuna edo gaixotasuna eta proposamena egin zuen Gobernuaren amaiera.

⁴² GIMENO SENDRA, Vicente. *“Introducción...”*, *op. cit.*, 210. or.

⁴³ Europako Ministro Kontseiluko Batzordearen 2000 Gomendioa, honako esteka honetan eskuragarri: <https://wcd.coe.int/ViewDoc.jsp?id=376859&Site=CM> (azken kontsulta: 2020-05-17)

2.3.2. Ministeritza Fiskala Botere Judizialaren organo gisa

Badaude beste autore batzuk, adibidez Muñoz Calvo, uste dutenak MF Botere Judizialaren parte dela. Autore horren arabera, Ministerio Fiskala Botere Judizialean sartuta agertzen da, botere politikoarekin loturarik ez duen magistratura ez-erabakitzaile gisa eta legezketasun- eta inpartzialtasun-printzipioen mende dagoena⁴⁴.

Ikuskera hori bat dator Italiako sistemarekin. Sistema horretan, Ministerio Publikoa arduratzen da auzi penalak ikertzeaz, eta epaileen antzeko estatusa du; izan ere, Magistraturari dagozkion bermeak ditu, eta "fiskal-magistratu" gisa eratu daiteke⁴⁵.

Jarrera hau defendatzen dutenen artean, bi iritzi oso desberdin daude. Alde batetik, batzuk ulertzen dute MF Justizia Administrazioaren organo bat dela. Baina argudio hau berehala aurkaratu daiteke, kontuan izanda EKko 117. artikulua eta BJLOren 2.1. artikulua, zeinetan kontsideratzen den botere jurisdikzionala epaitzeko eta epaitutakoa betearazteko botere gisa⁴⁶.

Botere honen titularrak Botere Judiziala osatzen duten Epaile eta Magistratuak dira eskusiboki; hori dela eta, ezin daiteke MF kontsideratu Botere Judizialaren organo bezala, ez duelako jurisdikzio boterea egikaritzen ezta justizia administratzen.

Bestetik, badaude beste autore batzuk kontsideratzen dutenak MF Justizia Administrazioarako eta bertan dagoen organoa dela, eta beraz, ez dago organikoki Botere Judizialaren barne. Granados Calero autoreak organo honen autonomia funtzionalaren printzipioa defendatzen du eta honen independentzia zehazten du Botere judizialaren aurrean⁴⁷, MFEoren 2.1. artikulua jarraituz. Artikulu horren arabera, MF garrantzi konstituzionala duen organoa da, berezko nortasun juridikoa duena, Botere Judizialean autonomia funtzionalarekin integratua dagoena, eta organo propioen bidez gauzatzen duena bere eginkizuna, jarduera-batasunaren eta hierarkia-mendekotasunaren printzipioen arabera, eta, betiere, legezketasun- eta inpartzialtasun-printzipioei lotuta.

Badago doktrinaren alde bat baieztatzen duena MF independentea dela eta honen arabera ez da nahastu behar Estatuko Fiskal Nagusia bestelako Fiskalekin, lehenengoa izendapen politiko bidez delako, baina besteak ez, eta ondorioz, independenteak dira. Horregatik Estatuko Fiskal Nagusiaren izara politikoak ez du eraginik beste fiskaletan, baina

⁴⁴ MUÑOZ CALVO, Jose Luis. *La independencia del Ministerio Fiscal en España. Su problemática. El llamado Consejo Fiscal*, Instituto de Estudios Fiscales, Madril, 1983, 2164. or.

⁴⁵ BASTARRECHE BENGUA, Tomás. "Jueces y Fiscales ante la instrucción. Cuestiones constitucionales", *Revista de Estudios Políticos*, 160. zk., 2013, 115. or.

⁴⁶ EK 117. art.: "Justizia (...) erregearen eta botere judiziala osatzen duten epaile eta magistratuen izenean administratzen da, independenteak, mugiezinak, erantzuleak eta legearen inperioaren mende soilik daudenak. (...) Era guztietako prozesuetan jurisdikzio-ahala erabiltzea, epaituz eta epaitutakoa betearaziz, epaitegi eta auzitegiei dagokie soilik (...)". BJLO 2.1. art.: "Jurisdikzio-ahala erabiltzea, epaituz eta epaitutakoa betearaziz, epaitegi eta auzitegiei dagokie soilik (...)".

⁴⁷ GRANADOS CALERO, Francisco. "El Ministerio Fiscal...", *op. cit.*, 55-57. or.

ezin da baztertu Fiskal Nagusiak Gobernuaren interesen bat transmititu dezakeela hori betearazteko, beraz, badago arriskua⁴⁸.

Gainera, badago menpekotasun bat *ad intra* dena, hau da, bere egitura funtzionalean, hierarkia printzipioaren menpe daudelako, eta beste bat, *ad extram* dena, beraien eguneroko jardueraren auzitegien aurrean, zeinetan legezketasuna nagusitzen den. Honen arabera, fiskalak independenteak dira eta ez du garrantzirik fiskalak duen jarrera prozesala bere inpartzialtasuna zehazterako orduan (horrek ez du independentzia kalifikatzen beraz).

Doktrinaren alde honek mantentzen du fiskalak, epaileak bezala, legearen menpe bakarrik daudela, baina oinarrizko ezberdintasun batekin: ez dituzte auziak erabakitzen behin betiko izaerarekin. Ondorioz, kontzeptua ez da berdina, Administrazioako funtzionarioak ere legearen menpe daudelako, nahiz eta era desberdinean izan, ez delako gauza bera legalki jardutea edo legezketasuna defendatzea.

⁴⁸ GÓMEZ COLOMER, Juan Luis. "La fiscalía española, ¿debe ser una institución independiente?", *Teoría y Realidad Constitucional*, 41. zk., 2018, 161. or.

III. AZKEN URTEETAN LEGEGILEAK FISKALTZAREN FUNTZIOAREN INGURUAN AURKEZTUTAKO PROIEKTUAK

Hiru dira lan honetan aztertuko diren erreforma proposamenak: PKL erreformatzeko 2020ko aurreproiektua (hemendik aurrera 2020ko aurreproiektua), 2013ko zigor arloko prozesu kodearen zirriborroa (2013ko zirriborroa) eta PKL erreformatzeko 2011ko aurreproiektua. Azken bi hauek batera aztertuko ditugu, dituzten antzekotasunak direla eta. 2020ko aurreproiektua hainbat urte geroago egin denez, bakarka aztertuko dugu. 2013ko zigor prozesuaren kodearen zirriborroa Alderdi Popularrak prestatu zuen, eta bi urte lehenago Gobernu Sozialistak PKLren 2011ko aurreproiektua landu zuen.

Hala ere, azken 30 urteetan, 1882ko PKL 44 erreformaren objektu izan da. Guztietan, edo behintzat gehienetan, badago puntu amankomun bat: Ministeritza Publikoari esleitzea ikerketa/instrukzio fasearen zuzendaritza. Hau da, MFk fase honetan duen eginbeharraren garrantzia handitu. Gaur egun, PKLko 303. artikuluari jarraikiz, instrukzio epaileari dagokio instrukzio fasearen zuzendaritza⁴⁹.

Erreforma ezberdinak aztertzen hasi aurretik, beharrezkoa da zehaztea zertan datzan instrukzioa. Ildo honetan, MARTIN OSTOS⁵⁰ autoreak kontzeptu bat ematen du instrukzioa zer den ulertzeko. Honen arabera, zigor prozesuaren barne dagoen fase bat da "delitua ikertzera bideratuta dagoena eta ahozko epaiketa prestatzeko helburua duena. Horren ondorioz, geroago, formalki akusatu ahal izango da pertsonaren bat eta ondoren epaitu".

Hala ere, PKLren 299. artikulua⁵¹ definizio teknikoago bat ematen du eta honekin lotuta SANCHIS CRESPOk azterketa bat egiten du adieraziz sumarioa osatzen dutela ahozko epaiketa prestatzeko bideratuta dauden jardueketak eta baita egileen erantzukizuna eta erantzukizun ekonomia zehazteko ere⁵².

CONDE-PUMPIDO FERREIROren hitzetan MF Estatuko organo bat da, justiziaren funtzionamendurako eratua dena eta Botere Juzialaren barne dagoena era autonomoan, legaltasun demokratikoa defendatzeko, interes publiko eta sozialak sustatzeko, hiritarren eskubideak babesteko eta auzitegien independentzia zaintzeko helburuarekin⁵³.

⁴⁹ Prozedura Kriminalaren Legea onartzen duen 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuko 303. art.: "Sumarioa eratzea, ofizioz hasten denean edo alderdiak hala eskatuta, instrukzio-epaileei dagokie, euren barruti edo mugape egokiaren barruan egiten diren delituengatik, eta, halakorik izan ezean, hiri edo biztanle bereko gainerako epaileei edo udal-epaileei eskuordetutako delituengatik."

⁵⁰ MARTÍN OSTOS, José. "Reflexiones sobre la justicia penal en España", *Revista de derecho procesal*, 2. zk., 2012, 43-70. or.

⁵¹ Prozedura Kriminalaren Legea onartzen duen 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuko 299. art.: "Sumarioa osatzen dute epaiketa prestatzera bideratutako eta delituak egin direla ikertu eta agerrarazteko gauzatutako jardunek, delituen kalifikazioan eta delitugileen erruduntasunean eragina izan dezaketen inguruabar guztiekin, delituen egileak eta diruzko erantzukizunak ziurtatuz".

⁵² SANCHIS CRESPO, Carolina. *El Ministerio Fiscal y su actuación en el proceso penal abreviado*, Comares, Granada, 1995, 47. or.

⁵³ CONDE-PUMPIDO FERREIRO, Cándido. *El Ministerio Fiscal*, Aranzadi, Nafarroa, 1999, 45. or.

Beraz, laburbilduz, esan dezakegu zigor prozesua bi fasetan banatzen da: instrukzioa (ikerketa) eta epaiketa. Instrukzio fasean delitu izan daitezkeen egitate batzuk ikertzen dira eta baita hauen egile izan daitezkeen pertsonak ere. Era berean, fase honetan zehar egoera hauen (egitateak eta erantzuleak) zantzuak biltzen dira, ondoren froga gisa erabili ahal izateko epaiketan. Ez badira zantzu hauek biltzen, ez litzateke bigarren fasea irekiko, hau da, epaiketa.

3.1. PKL erreformatzeko 2011ko Aurreproiektua eta Zigor arloko prozesu kodearen 2013ko zirriborroa

Zalantzarik gabe, PKLren 1988ko erreforma aukera garrantzitsua izan zen MFk zigor-prozesuan zituen eginkizunak zehazteko, instrukzio judizialaren eredia alde batera utziz eta MFri esleituz delituen ikerketa, beste legedi batzuek hartutako irtenbideak kontuan hartuta eta Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren arabera, zeinak 145/1988 epaian⁵⁴ ezarri zuen instrukzioa eta epaia bi organo ezberdinek egin behar zutela, epaile inpartziala izateko eskubidea errespetatuz. Horrela, gure ordenamendua egokituko da gure inguruko herrialdeetan ezarritako instrukzio fiskaleko sistemara. Hala ere, erabaki zen instrukzio judizialaren eredia mantentzea, baina MFren ikerketa ahalmenak zabalduz, baina ez da lortu behin betiko esleitzea MFri ikerketaren zuzendaritza. Alabaina, adingabeen prozesuan bai ematen da fiskal instruktorearen eredu hau eta 5/2000 Lege Organikoaren 16.artikuluan espresuki esleitzen zaio prozeduren instrukzioa MFri⁵⁵.

Orain arte garrantzi berezia izan duten bi erreforma (kontuan izan gabe 2020ko aurreproiektua, ondoren aztertuko dena) proposamen aurkeztu dira: 2011ko erreforma aurreproiektua eta 2013ko Zirriborroa. Bi proiektuen berrikuntza nagusia MF ikerketaren zuzendari bihurtzea da, Instrukzio Epailea Berme epaile batengatik ordezkatzuz.

Azken urteetan gobernu desberdinek prozesu penala aldatzeko saiakera egin dute, MFri ikerketa kriminalaren zuzendaritza funtzioa esleitzeko, Instrukzioko epailearentzat erreserbatuz “berme epailearen” funtzioa.

Hasteko, 2011ko Aurreproiektuan⁵⁶ MFk egintza zigorgarria dagoen konporbatzeko eta baita erantzulea nor den jakiteko ikerketa eginbideak egin ahal izango ditu baimen judizialik gabe, Polizia Judizialari aginduz susmagarria den pertsona atxilotzeko. Era berean, agindu dezake gorpuaren autopsia egitea, DNA laginak lortzea, Berme Epaileari eskatzea kautela neurriren bat aplikatzea...

⁵⁴ KAE 145/1988, 1985eko uztailak 12.

⁵⁵ LANZAROTE MARTÍNEZ, Pablo. “*La autonomía del Ministerio Fiscal...*” *op. cit.*, 131-132. or.

⁵⁶ LEAL MEDINA, Julio. “*Un estudio sobre el anteproyecto...*”, *op. cit.*, 17. or.

Bestalde, 2011ko Aurreproiektuaren XVI atalean MFren arauketa egiten da. Testuaren 42. orrialdean baieztatzen da MFri esleitzen zaiola ikerketa fasearen zuzendaritza, honako hau adieraziz: *“a las funciones ordinarias del fiscal se suma ahora la de director del procedimiento de investigación oficial. Una idea que, como se ha visto, no fue ajena a los planes iniciales del legislador de 1882. En la actualidad, atendiendo a la necesidad de preservar la imparcialidad objetiva del juez y de restar valor a los meros actos de investigación, la atribución al Ministerio Fiscal de esta función directiva presenta una clara dimensión garantista a la que ya se ha hecho referencia. Pero esta opción también viene aconsejada por la idoneidad de esta institución para combinar -en una organización flexible y racional, basada en criterios de especialidad- la sujeción imparcial a la legalidad vigente con la mayor unidad de actuación”*.

Bere aldetik, 2013ko Zirriborroak dituen azalpenek bat egiten dute aurreko aurreproiektuarekin, honako hau ezartzean: *“el nuevo Código de Proceso Penal configura un sistema de investigación y enjuiciamiento moderno, ágil y equilibrado, que se atreve a romper con la perniciosa tradición inquisitorial y atribuye la dirección de la investigación al Ministerio Fiscal, sin duda una de las novedades más sobresalientes.”*. En el mismo párrafo estipula como objetivos de la reforma *“la aplicación de la ley penal y la salvaguarda de los derechos de los justiciables.”*

Edukiarekin jarraituz, 2011ko Aurreproiektuak egiten duen beste erreforma bat da Fiskalak pertsona baten kontra irekita dagoen zigor prozedura artxibatu dezakeela, erakunde kriminal baten ikerketa errazteko. Era berean, badaude bestelako kasu batzuk zeinetan prozeduraren artxibatzea eman daitekeen nazio segurtasunerako arrisku larria dagoenean, Estatuko Fiskal Nagusiari dagokiolarik aukera printzipioa aplikatzea⁵⁷.

Era berean, 2013ko Zirriborroak ere MFri esleitzen dio instrukzioaren zuzendaritza. Eraldaketa honekin Fiskalak ikertzailearen funtzioa bere gain hartzen du eta Instrukzio epailearen funtzioa izango da eskubideak bermatzea fase prozesal honek irauten duen bitartean, ikerketan inplikaturik ez dagoen Berme Epaille bat izatera pasatuz⁵⁸.

Halaber, 2013ko Zirriborroak⁵⁹ proposatzen zuen beste berrikuntza bat adostasun instituzioari dagokiona zen. Instituzio honek aukera ematen zuen epai kondena epai bat emateko, delituarekiko independentea, epaiketaren beharrik gabe, betiere erruztatuak eskatu den zigor larrienarekin ados azaltzen bada. Behin adostasuna lortu dela ikerketa fasean, Berme Auzitegiari dagokio honen kontrola eta epaia ematea. Baina adostasuna ondoren lortzen bada, Epaiketa Auzitegiari dagokio.

⁵⁷ Ibidem, 18. or.

⁵⁸ Honako esteka honetan eskuragarri: <https://www.abogacia.es/actualidad/noticias/para-cuando-la-nueva-ley-de-enjuiciamiento-penal-analisis-de-la-tension-secreto-publicidad-en-la-futura-instruccion/> (azken kontsulta: 2021-04-01)

⁵⁹ Zigor arloko prozesu kodearen Zirriborroaren IV Tituluko III Kapituluua.

Beraz, esan dezakegu berdintasun asko daudela 2011ko erreforma aurreproiektuaren eta 2013ko zigor arloko prozesu kodearen zirriborroaren artean. Berdintasun guzti horien artean, azpimarratzekoa da egungo instrukzio epailearen figuraren inpartzialtasun eztabaidagarriaren baieztapena, eta zigor prozesuaren egitura aldatzeko beharra, ikerketa-fasearen zuzendaritza Fiskaltzari esleituz⁶⁰.

Horrela, 2011ko aurreproiektuak zioen azalpenean honakoa hau baieztatzen du: 1978an ezarri zen berme prozesalen sistema eraginkorra izateko, ezinbestekoa da epaileak konstituzio-ordenan dagokion posizio nagusia betetzea, prozesuko interesetik kanpo dagoen organo gisa. (...)

Jokoan dauden interesak babesteko gai izan behar da, benetako inpartzialtasun-posiziotik. (...) Aurrerantzean, epailea ez da ikerketa-jarduera publikoaren bultzatzaile gisa hartu behar, baizik eta norbanakoen eskubideen bermatzaile gisa. Ikerketa-fasean epailearentzat erreserbatutako zereginen zerrenda aztertuz gero, ikus daiteke eginkizun judizialek, funtsean, lehian dauden hiru uziren ondoriozko gatazkak konpontzen dituztela. Alde batetik, Estatu ikertzailearena (...). Bestetik, ikertutako herritarrarena (...). Azkenik, biktimaren uzia eta akusatzaile posibleek Estatuaren ikerketa-jardueran parte hartu dezaketenak, eta Ministeritza Fiskalarena ez den akzio penala egikaritu dezaketenak. (...) Epailea posizio pasiboan dago, eta bertatik ebazten ditu egiten zaizkion eskaerak, jokoan dauden interesetako baten alde egin gabe (...) Puntu honetan, ahal judizialen zerrenda osoa figura espezifiko batean biltzea izan da jarraitu den aukera, (...) jarduketan nondik norakoa kontrolatzera bereziki deitutako epaile batean. Nahiago izan da figura hori ezagutzeko erabili ohi den izendapena erabiltzea. Beraz, berme-epaile bat aipatzen da (...).

Bestalde, 2013ko zigor arloko prozesu kodearen zirriborroak zioen azalpenean honako hau aldarrikatzen du: Instrukzio-epailea Inkisidorearen jaraunsletzat jo da. Legeak inputatuaren aurkako susmoaren bidez egia argitzeko deia egiten badu, nahitaez baldintzatuta geratzen da haren neutraltasuna, haren boterea murrizten duten oinarrizko eskubideak bermatzeko instantzia gisa, eta, ezinbestean, galdu egiten du akusazio-epaiketa emateko inpartzialtasuna, largespenaren edo ahozko epaiketaren irekieraren artean erabakitzeko eskumena ematen zaion prozesuetan. (...) Horrela, Fiskaltzari ikerketaren zuzendaritza esleituta, oinarrizko eskubideen auzitegi bermatzailea distantzia-posizio egokian kokatzen da, eta Epaiketa Auzitegia, egitateak baloratzean, frogaren baloraziora mugatzen da, alderdien arteko eztabaida prestatzeko ikerketa-jarduketak alde batera utzita. (...) Kodeak ikerketa-fasean defentsa-eskubidea egikaritzea bermatzen du; izan ere, MFk erabakitako eginbideetan alderdiek esku hartzea aurreikusten du, bai eta MFren dekretuak Berme Auzitegian aurkaratzeko aukera ere, baldin eta kalte egin badiezaiokete.

⁶⁰ GARCÍA-PANASCO MORALES, Guillermo. "La reforma del proceso penal: hacia un verdadero modelo de fiscal investigador", TFG tesis doctoral, Universidad de las Palmas de Gran Canaria, 2016, 265. or.

Kontuan izanda 2011ko aurreproiektuak ez zuela aurrera egin, honako hauek izan beharko lirateke erreformak arrakasta izateko behar diren baldintza beharrezkoak⁶¹:

Ikuspegi organikotik beharrezkoak dira hurrengo berrikuntzak: dependentzia eraginkorra, zentzu bikoitzean, organikoa eta funtzionala, Polizia Judizialarena MFrekiko. EKren 126. artikulua ezartzen duen Polizia Judizialaren dependentzia, Aginte Judizialarekiko edo MFrekiko izango da baina bakarrik poliziak delituaren bilaketa funtzioak egiten dituenan edo delitugilea nor den aurkitzen duenean. Beraz, Aginte Judizialak edo MFk ez dutenean ikerketa funtzioak egikaritzen, Polizia Judiziala ez da hauen menpe egongo, posible izanik dependentzia hori era bikoitzean arautzea: dependentzia absolutu gisa, ikuspuntu organiko eta funtzioinoretik, edo dependentzia bikoitza eratuz, Botere Judizialarekiko eta MFrekiko alde batetik, eta bestetik, Botere exekutiboarekiko, hau izanik legegileak hartu duen aukera BJLOan zein Estatuko Segurtasun Indar eta Gorputzen Legean, zeinetan funtzionalki Fiskalen eta Epailen menpeko Polizia Judizialaren Unitateak ezartzen diren, eta organikoki, Barne Ministeritzaren menpe.

Bigarrenik, beharrezkoa da Ministeritza Publikoaren plantilla organikoa handitzea eta langileen deskontzentrazio progresiboa, Instrukzio Epaitegi bakoitzak Fiskal bat izateko helburuarekin.

Azkenik, beharrezkoa izango da akusazio publikoaren organoari autonomia nahikoa ematea funtzio berri hauek itxura inpartzialarekin bere gain hartzeko.

Ikuspegi prozesualetik, Ministeritza Publikoari eman beharko litzaioke ikerketaren zuzendaritza eta Instrukzio Epailera mantendu erdibideko fasea ezagutzeko eta baita aurretiazko sumario frogara eta oinarritzako eskubideak mugatzen dituzten neurriak ezagutzeko. Hala ere, aukera egongo da Ministeritzak neurri horiek hartu ahal izateko larrialdi kasuetan, ondorengo onarpen judizialarekin. Beraz, Ministeritza Fiskalari ez litzaioke emango instrukzio faseak barne hartzen dituen egintza guztiak egiteko eskuduntza, baizik eta izaera juridikozionala ez duten egintzak bakarrik, hala nola egitateak argitu, nor den egitateen autoreak edo zeintzuk diren dauden frogara iturriak.

Aurreproiektuarekin, MFk ikerketa hasten du dekretu bidez (2011ko Aurreproiektuaren 457. artikulua). Desagertu egiten da akzio penalak egikaritzen erabiltzen den kereilaren ohiko figura (PKLren 271. artikulua). Eta inolako epailerik behar izan gabe, beharrezkoak diren ikerketa-eginbideak egin ahal izango ditu, salaketa edo atestatua egin ondoren, delitua egon dela eta delituaren erantzuleak zeintzuk diren egiaztatzeko. Horretarako, polizia judizialari susmagarria den pertsona atxilotzeko agindu ahal izango die, horretarako arrazoirik badago, eta gertakarien inguruan deklarazioa hartu ahal izango du, baita lekukoei ere, halakorik balego. Gorpuaren autopsia egiteko ere agindu ahal izango du, DNA laginak lortu ahal izango ditu, peritu-froga psikiatrikoak, psikologikoak edo poliziaren txosten teknikoak adostu ahal izango ditu, kasu horretarako egokiak badira.

⁶¹ Ibidem, 151, 152, 153. or.

Hala ere, ikertuaren oinarriko eskubideei eragiten dieten eginbideen aurrean gaudenean, hala nola Konstituzioaren 18. artikuluan jasotako aurrean, Aurreproiektuak MF behartzen du berme-epailearen onespena eskatzera; izan ere, kasu horietan, hala nola komunikazioetan esku hartzea, posta elektronikoa ikuskatzea, edo egoitzan sartzea eta erregistratzea, gizakiaren alderdirik barnekoenak eta pertsonalenak dira. Hori dela eta, eginbide hauek egin ahal izateko epailearen baimena beharko da halaberrez⁶².

Horrela, behin MFk delitu-egitatea dagoela uste duenean eta pertsona susmagarri bat dugunean beraren aurka zigor akzioa egikartzeko, dagokion akusazio-idazkia aurkeztu beharko zaio Atariko Auzitegiko (audiencia preliminar) epaileari, inpartzialtasun judiziala bermatzeko aurreproiektuak ad hoc sortutako berme-epailea ez den beste epaile bati hain zuzen ere. Akusazio-epaiketa deiturikoan, eztabaidatzen da elementu inkriminatzailearik dagoen edo ez eta froga nahikorik dagoen ikertutaren aurka, ahozko epaiketa irekitzeko. Momentu horretan hasiko da benetako epaiketa eta prozesua, izan ere, orain arte MFk egindako ikerketa eginbideek ez dute froga baliorik, Aurreproiektuaren 127.artikularen arabera.

Biktimentzako laguntza eta babesa ere, polizia judizialarekin koordinatuta, aurreproiektuan jasotzen den MFri esleitutako beste funtzio nagusienetarikoa bat da. Laguntza emateko beharra edo beren eskubideak babesteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartuz, jasota daude jada PKLren 773.1 artikuluan. Orain, aurreproiektuarekin, biktimari ematen zaion arreta osoa da, eta zigor-arloko prozesuaren barruan dituen eskubideei buruzko informazio eta zehatzagoa eskura daiteke.

2011ko Aurreproiektuaren artikuluen azterketarekin jarraituz, lehenik eta behin ikusiko dugu zeintzuk diren berme epailearen funtzioak.

Aldez aurretik esan beharra dago bi testuak bat datozela Berme epailearen eskuduntza esparrua zehazterako orduan. Ildo honetan, 2011ko aurreproiektuaren 2. artikuluan daude jasota eta 2013ko zirriborroan aldiz, sakabanatuta daude bere funtzioak tetsu osoan zehar.

Horrela, 2011ko lege aurreproiektuak modu honetan deskribatzen ditu berme epailearen funtzioak:

Ikerketa-prozeduran, agintaritza judizialari dagokio:

1. eskubideak murrizten dituzten ikerketa-eginbideak baimentzea.
2. Kautelazko neurrien eskaerei buruzko ebazpena ematea.
3. Proba-iturri pertsonala bermatzea, proba galtzeko arriskua dagoenean.
4. Ikerketaren iraupena kontrolatzea.
5. Ikerketaren sekretua eta luzapena baimentzea.
6. Ikerketa-prozeduraren largespina xedatzea.
7. Fiskaltzaren dekretuen aurkako aurkaratzeak ebaztea.

⁶² LEAL MEDINA, Julio. “ Un estudio sobre el anteproyecto...”, *op. cit.*, 18. or.

8. Prozedura berriz irekitzeko baimena ematea, pertsona jakin baten aurka zuzendu denean.
9. Defentsak edo akusatzaile partikularrek edo popularrek eskatuta, Fiskaltzak egindakoen osagarri diren ikerketa-eginbideak egiteko agintzea.
10. Delituaren biktima zabaltzea, fiskalak baldintza hori ukatzen dionean ikerketan zehar.
11. Bereziki ahulak diren biktimak babesteko neurriak hartzea.
12. Herri-akusatzaileen bertaratzeari eta esku-hartzeari buruz erabakitzea.
13. Akzio zibila baztertzeari buruzko ebazpena ematea, horrek prozeduraren izapidetzean atzerapen larriak eragin ditzakeenean.

Bestalde, 2013ko zirriborroan, berme epaileari esleitzen zaizkio, 241. artikulua arabera, “*el control de la fase de investigación mediante las actuaciones previstas expresamente por la Ley*”. Eskumen esleipen orokor hau beste zenbait artikuluetan zehazten da: oinarritzko eskubideak mugatzen dituzten neurrien gaineko kontrola (298, 314, 320, 338 eta 349 artikulua); proba segurtatzea (432 eta hurrengoak); ikerketaren iraupena (127.art.); biktimen eskubideak babestea eta akusazioen bertaratzeari kontrolatzea (59 eta hurrengoak), akusazio epaiketa (429 eta hurrengoak)...⁶³

2011ko legegilearen helburua zen epaile inpartzial bat izateko eskubidearen eskakizunekin guztiz bat datozen ikerketa-sistema bat eta tarteko fase bat eratzea, epaileak bete behar dituen funtzioetan zentratuz⁶⁴. Beraz, kontsideratzen da delitua argitzeko eta egile posibleen aurka karguak aurkezteko funtzioak bateraezinak direla ikerketa jarduerak herritarren oinarritzko eskubideen esparruan duen esku-sartzea kontrolatzeko eta mugatzeko eginkizunekin, baita herritarren aurka aurkezten diren karguak onartu eta baztertzeko eginkizunekin ere.

LÓPEZ LÓPEZ autorearen arabera⁶⁵, eredu honetan Epailea ikerketatik urruntzen den organo bat da, baina ez dago kanpoan, ikerketetan sortzen diren gatazkak konpontzeko posizio egokian baitago; beraz, ikerketa zuzentzen ez duenez, gatazkak ebatzi ditzake, epaile ikertzailearen betebeharrak asaldatu gabe.

Dakigunez, PKL berri bat egitearen arrazoietakoa bat da zigor-arloko ikerketa-prozesuaren zuzendaritza konstituzio organo bati esleitzea, hau da, MFri, EKren 124. artikuluan xedatutakoaren arabera. Organo hori ordura arte Instrukzio Epaileak izan dituen funtzioetatik arduratuko litzateke. Hala ere, azken hori ez litzateke desagertuko; aitzitik, berme-epaile gisa eratuko litzateke, eta haren betebeharra ikertuaren bermeak babestea

⁶³ GARCÍA-PANASCO MORALES, Guillermo. “La reforma...”, *op. cit.*, 268-269. or.

⁶⁴ LÓPEZ ORTEGA Juan Jose y RODRIGUEZ FERNANDEZ Ignacio. “El proceso penal como sistema de garantías (I)”, *Diario La Ley*, 8077. zk., 2013, 42-65. or.

⁶⁵ LÓPEZ LÓPEZ, Enrique. “El nuevo proceso penal. La investigación del Ministerio Fiscal vs. abogado defensor: el juez encargado del control de la acción penal”, *Diario La Ley*, 7987. zk., 2012, 56-70. or.

izango litzateke; gainera, organo jurisdikzional bat izango litzateke, MFk egiten duen ikerketaren inpartzialtasuna eta kontrola bermatzeko.

Egia da, erreforma-proiektu honekin MF ikerketa penalaz arduratuko dela, baina ikertuaren oinarrizko eskubideei eragiten dieten eginbideen aurrean dagoenean (adibidez, Espainiako Konstituzioaren 18. artikulukoak⁶⁶) berme-epailearen onespena lortu beharko du, haren eginkizun nagusietako bat ikertuaren bermeak babestea baita.

Figura berri hau sortzeko beste arrazoi bat da MFk egindako ikerketa-eginbideen legezkotasunaren kontrolarekin zerikusia duena; izan ere, berme-epaileari dagokio eginbide horien gaineko kontrola, eta instrukziotik kanpoko behatzaile inpartzialaren figura hartzen du. Behatzaile horrek egiaztatuko du MFk egindako ikerketek legezkotasunaren eta konstituzionaltasunaren printzipioaren pean jarduten duten, eta, gainera, MFk instrukzioan dagoen bitartean dituen zalantzak ebazteko ahalmena du berme epaileak. Era berean, berme-epaileari dagokio kautela-neurri jakin batzuk erabakitzea⁶⁷:

- Kautela-neurri pertsonalak, adibidez, atxilotuaren egoera personala gehienez 72 orduko epean erregularizatzea, atxilotzen denetik edo haren luzapena baimentzen denetik zenbatzen hasita; babes-agindua agintzea; behin-behineko espetxeratzea eta luzapenak erabakitzea...
- Kautela-neurri errealak, hala nola ibilgailuaren esku-hartzea eta zirkulazio-baimena kentzea; argitalpen bat bahitzea..

Azken batean, berme-epailearen erakundea sortzen da, MFk egindako ikerketa-eginbideak kontrolatzeko, eta haren onespena beharko da ikertuaren oinarrizko eskubide eta askatasunak arriskuan daudenean.

Fiskal ikertzailearen funtzioei dagokionez, bi eruedetan agertzen da fiskala ikerketaren zuzendari gisa, eta ez bakarrik inpartzialtasuna bermatzeko, baita sistemaren eraginkortasun praktikorako ere⁶⁸. 2011ko aurreproiektuan honako hau adierazten zen: gaur egun, epailearen inpartzialtasun objektiboa babesteko eta ikerketa-ekintza hutsei balioa kentzeko beharrari erantzunez, Fiskaltzari zuzendaritza-eginkizun hori esleitzeak dimentsio bermatzaile argia du (...).

2013ko zirriborroak, era beran, honako hau adierazten zuen: "Eraginkortasunaren ikuspegitik, fiskal ikertzailearen eredia hobea da instrukzio-epailearena baino. Jarduera-

⁶⁶ EK 18.artikuluak ondorengo ezartzen du: "1.- Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta bakoitzaren irudirako eskubidea bermatzen da. 2.- Egoitza bortxaezina da. Bertara ezin da sartu, ezta erregistrorik egin ere, jabearen baimenik gabe edo epailearen ebazpenik gabe, delitua ageri- agerikoa denean izan ezik. 3.- Komunikazioen sekretua bermatzen da, eta, bereziki, posta, telegrafo eta telefono bidezkoak, ebazpen judiziala izan ezean. 4.- Legeak informatikaren erabilera mugatuko du, herritarren ohorea, eta norberaren nahiz senitartekoen bizitza pribatua, eta horien guztien eskubideen egikaritza osoa bermatzeko."

⁶⁷ LEAL MEDINA, Julio. "Un estudio sobre el Anteproyecto...", *op. cit.*, 23. or.

⁶⁸ GARCÍA-PANASCO MORALES, Guillermo. "La reforma...", *op. cit.*, 270. or.

batasunaren eta mendekotasun hierarkikoaren printzipioak erreformaren aurkako argudio gisa erabiltzen badira ere, egia da, hain zuzen ere, adierazitako printzipio konstituzion hauek ahalbidetzen dute irizpide koherenteak aplikatzea eta jardunbide uniformeen jarraipena egitea ikerketa penalaren zuzendaritzan, kriminalitatearen eremu guztietan eta lurralde nazional osoan ⁶⁹.

MF ikerketaren zuzendari gisa duen funtsezko eginkizuna 2011ko aurreproiektuaren 425. artukulan dator jasota; honen arabera, MFk ikerketa-prozedura zuzentzen du, eta 2013ko zirriborroaren 240. artikuluan, honako hau adierazten duenean: Ikerketa-eginbideak zuzentzea Fiskaltzari dagokio, berme-auzitegiaren ebazpen bat betearazteko irekitako eginbideak barne, kereila-jartzaileak eskatuta.

Hala ere, badaude autore batzuk uste dutenak Fiskal instruktorearen eredia konstituziokontrakoa izan daitekeela, EKko 117. artikuluko 3. eta 4. atalak urratzen direlako Ministeritza Fiskalari funtzio horiek esleitzerakoan⁷⁰.

Iritzi bera mantentzen du Benavent Cuquerellak, adierazten duenean fiskalaren ardurapeko instrukzioa konstituzioaren aurkakoa izan daitekeela; MFk ez duela jurisdikzio-ahalmenik ikuspegi konstituzionaletik⁷¹. Ideia bera partekatu dute beste autore batzuk, Ortells Ramos besteak beste⁷². Beraz, eredu hau “konstituzionala” bihurtzeko, bi bide jarraitu dira: MF instrukzio funtzio mugatuak esleitzea, eta organo honen printzipio informatzaileak mantentzea.

Alde batetik, MFri eman nahi zaio prozesu penalaren instrukzio fasearen zuzendaritza, baina era mugatuan, eskema konstituzionala ez apurtzeko. Beraz, MF eginkizun berria ikerketa penala zuzentzea soilik izango da, eta ikerketa gisa ulertuko da egitateak argitzea eta erantzule posibleak zehaztea. Hala ere, honek esan nahi du instrukzio fasearen bestelako jarduketak agente judizialak bete beharko dituela, baina Instrukzio Epailera deitu beharrean, Berme Epailera deitzen da eta azken honi dagokio, beste eginkizun batzuen artean, MFren jarduketak ikuskatzea, legaltasunez betetzen direla bermatzeko. Beraz, MF kontrolatzen duen Epaila bat izatera pasatzen da, eta ez alderantziz, egungo prozesu penalean gertatzen den moduan⁷³.

⁶⁹ Ibidem, 271. or.

⁷⁰ GARBERÍ LLOBREGAT, José. “¿Fiscal instructor?: pocas ventajas y un enorme inconveniente”, *Revista jurídica de castilla y león*, 14. zk., 2008, 174. or.

⁷¹ BEVAVENT CUQUERELLA, Davit. *La dirección de la investigación criminal por el Ministerio Fiscal en España: situación actual y reformas proyectadas*, Fe d'erratas, Madril, 2014, 87. or.

⁷² ORTELLS RAMOS, Manuel. “Nuevos poderes para el Ministerio Fiscal en el proceso penal: límites constitucionales y valoración político-jurídica”, *Revista de Derecho Procesal*, 2. zk., 1990, 236-237. or.

⁷³ BASTARRECHE BENGÓA, Tomas. “Jueces y Fiscales ante la instrucción. Cuestiones constitucionales”, *Revista de Estudios Políticos*, 160. zk., 2013, 110. or.

Bestalde, MFren printzipio funtzionalak eta organikoak mantendu nahi dira. Lehenak, legaltasunaren eta inpartzialtasunaren printzipioak dira, eta bigarrenak, jarduera batasunarena eta mendekotasun hierarkikoarena. Interes handiagoa dago azken hau mantentzeko. Hau horrela da gaur egun MF Botere Exekutiboaren menpe dagoela esaten delako; dependentsia harreman hau ematen da Estatuko Fiskal Nagusiaren izendapena Gobernuak proposatzen duelako eta erregeak egiten du izendapena⁷⁴.

Zigor prozesuaren erreformaren aldekoek mantentzen duten argudio hau ematen da ez delako Ministeritza Publikoaren egitura organikoan inolako aldaketarik egiten, eta ondorioz, Botere Exekutiboaren menpeko MF instruktore baten nahia mantentzen da eta horrek konstituziokontrakotasun itxura izan dezake. Honen kontrako argudioa ere ez da baliozko aukera, baina bai konstituzionala; argudio honek EKren eta MFEOren reforma dakar, MFri independentzia organikoa emateko. Baina ideia honek, nahiz eta MFren instrukzio funtzioaren esleipenari legaltasuna eman, ez litzateke zentzuzkoa izango, aldaketa honek suposatuko lukeelako MFk eta Epaileak parekatzea, independentzia dutenak EKko 117.1 artikulua araber. Beraz, aukera honekin ez litzateke ezer lortuko⁷⁵.

3.2. Zigor Prozeduraren Legea erreformatzeko 2020ko Aurreproiektua

Ministeritza Kontseiluak Aurreproiektu hau onartu zuen 2020ko azaroaren 24an, aldaketa handia suposatuz egungo zigor prozesu sisteman.

Zioen azalpeneko II. atalean jasotakoaren arabera, aurreko bi Aurreproiektuak (2011koa eta 2013koa) orain onartzen den testuaren iturri nagisiak dira, haien helburua zena gaur egungo zigor prozesu eredua gainditzea. Halaber, azken bi eraldaketa nagusi errespetatu dira, alde batetik, urriaren 5eko 13/2015 Lege Organikoa, PKL aldatzen duena prozesuko bermeak indartzeko eta ikerketa teknologikoko neurriak arautzeko, eta bestetik, urriaren 5eko 41/2015 Legea, PKL aldatzen duena zigor arloko justizia arintzeko eta prozesu bermeak indartzeko.

Aurreproiektu honetan ere, kontu nagusia da MFri esleitzen zaiola prozeduren instrukzioa. MFren paper berri hau dela eta, Polizia Judiziala MFren agindu eta instrukzioak jarraituz jardun beharko du.

Hau funtzionatu ahal izateko, beharrezkoa da aldez aurretik beste arau batzuk aldatzea, bigarren azken xedapenean erreferentzia egiten dielarik arau horiei. Zehazki, Botere Judizialaren Lege Organikoa, MFEO eta Auzitegi eta Epaitegien mugape eta antolaketari buruzko Legea. Hau horrela da MF instruktore gisa arautzen delako, eta horrez gain, ezarri nahi delako zigor justiziaren eredu organiko berri bat, egungo epaitehiak

⁷⁴ EKren 124.4 art. eta MFEOren 29. art.

⁷⁵ GARBERÍ LLOBREGAT, José. “¿Fiscal instructor?...”, *op. cit.*, 177. or.

desagerraraziz eta instantziako auzitegiak sortuz. Organo hau, instantziako auzitegia, orain arte Probintzia Auzitegiak izan duen papera beteko du⁷⁶.

Aldaketa prozesal garrantzitsu hau justifikatzen da Europar Batasunaren esparruan ikerketa penala Ministeritza Publikoari esleitzen zaiolako, eta halaxe jaso zen Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko 2017/1939 (EB) Erregelamenduan, Europako Fiskaltza sortzeko lankidetzaren indartua ezartzen duena, eta hori gure barne-ordenamendu juridikoan ere txertatuko da, Europako Fiskaltzaren Lege Organikoaren Aurreproiektuaren eta PKLren testu berriaren bidez.

Epailearen funtzio berriei dagokionez, kontuan izan behar da zigor prozedura hiru fasetan desberdintzen dela: ikerketa, akusazio epaiketa eta ahozko epaiketa. MFren rol berri honekin, epaileak prozesuko interesetik baztertuta dauden organoak izatera pasatuko dira eta “Berme Epaille” izendatuko dira (figura hau ere jaso zen 2011ko aurreproiektuan eta 2013ko proposamenean), ikertuen eskubideak babesteko dituztelarik ikerketa fasean (IV. Liburua); “tarteko fasean” (V. Liburua), behin prozedurak aurrera egin duela, beste epaile batzuk hartuko dute parte eta hauek “Aurretiazko Auzitegiaren Epailleak” deituko dira, beraiei dagokielarik erabakitzea ahozko epaiketa irekiko den edo artxibatzea erabaki, eta zer froga diren baliozkoak eta zeintzuk diren “legezko frogak”; azkenik, ahozko epaiketa (VI. Liburua) Instantziako Auzitegiaren aurrean egingo da. Honek epaituko du eta epaia emango du. Epaia eta gero, betearazpen fasea “Exekuzio Epaileri” esleituko zaio.

MFren ohiko eginkizunei ikerketa prozeduraren zuzendaria izatea gehitu behar zaie orain. Gaur egun, epailearen inpartzialtasun objektiboa babesteko eta ikerketa-egintza hutsei balioa kentzeko beharrari erantzunez, MFri zuzendaritza-eginkizun hori esleitzeak dimentsio bermatzaile argia du, eta, gainera, abantaila handiak ditu, bere egituraren malgutasunagatik eta jarduketaren batasunaren printzipioaren indarraldiagatik.

Alderdi prozesalean, printzipioz, 2011ko Aurreproiektuan egindako proposamena hartzen da abiapuntutzat; horren arabera, berme-epaileari aplikatu beharreko eskumen-erregela berberak zehaztuko dute, hasiera batean, ikerketa-prozedura zuzendu behar duen fiskaltza. Hala ere, gaiaren berezitasunen edo gaiaren konplexutasunaren arabera, ikerketa erakundeko organo zentral baten esku utzi ahal izango da, bai fiskaltza berezi baten esku – Ustelkeriaren aurkakoa edo drogen aurkakoa–, bai Estatuko Fiskaltza Nagusiaren egituraren barruan kokatutako fiskal baten esku.

MFren oinarritzko egituraren barruan organo eskuduna zein den zehaztu ondoren, erabaki da fiskalen talde autonomoen funtzionamenduan oinarritutako barne-antolaketa sustatzea. Talde horiek, behar izanez gero, atxikitako polizia-unitateez eta perituez zein adituez hornituta egongo dira.

⁷⁶ MUERZA ESPARZA, Julio. “Sobre el Anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Criminal de 2020”, *LegalToday*, 2021. Honako esteka honetan eskuragarri: <https://www.legaltoday.com/opinion/articulos-de-opinion/sobre-el-anteproyecto-de-ley-de-enjuiciamiento-criminal-de-2020-2021-01-21/> (azken kontsulta: 2020-04-26)

Fiskalen taldeak arautzearen helburua delinkuentzia-kasu bereziei aurre egiteko espezializazio hutsa baino askoz ere aldaketa sakonagoa lortzea da (2011ko aurreproiektuan ez bezala): MFren barruan kide anitzeko egitura iraunkorrak ezartzea, autonomia osoz eta ahalik eta eraginkortasun handienarekin jarduteko gai izango direnak, mota guztietako delituei dagokienez. Kide anitzeko funtzionamendua eraginkorra izan dadin, talde bakoitzak fiskal koordinatzaile bat izan behar du, baliabide komunak kudeatzeko, lanaren kalitate-estandarrik mantentzeko eta hasitako ikerketa guztiei koherentzia eta batasuna emateko. Beraz, fiskalen talde bakoitzaren barruan hartzen diren erabakiak ez dira kide baten jardun bakartiaren emaitza eskusiboa izango, kide guztien erantzukizunaren menpe dagoen erabaki bat baizik⁷⁷.

Puntu honetan, oso ideia partekatua izan da Fiskaltza ezin dela egon kanpoko menpekotasun hierarkikoko inolako loturaren mende. Azken batean, MFk dituen eginkizunengatik alderdi-izaerako esku-sartze ororen aurrean babestuta egon behar da. Horretarako, prozesu-erreforma honen aurretik, Fiskaltzaren Estatutu Organikoa funtsean aldatu da, urriaren 9ko 24/2007 Legearen bidez. Lege horrek mugiezintasuna ematen dio Estatuko Fiskal Nagusiari bere karguan diharduenean, eta nabarmen indartzen du erakundearen autonomia funtzionala⁷⁸.

PKLren Aurreproiektu berriaren alde onak baloratzerako orduan, errazena da aurreko PKLren gabeziak nabarmentzea; izan ere, nahiz eta urteetan zehar balio izan duen, hainbat erreforma partzialekin, argi dago beharrezkoa dela aldaketa bat⁷⁹.

MFren papera, zalantzarik gabe, kontu eztabaidatsuenetariko bat da. Esan bezala, MFri esleitu nahi zaio prozesuaren instrukzioa eskusiboki, berme epailearen esku utziz ikertuaren eskubide eta askatasunak babestea. Beraz, epailea beti posizio pasibo batean egongo da, planteatzen zaizkion eskaerak ebatziz, baina jokoan dauden interesen alde egin gabe, horrela partzialtasuna ez agertzeko. Argi dago MFren funtzio berri honekin beharrezkoa izango litzatekeela aldaketa bat egitea bere Estatutu Organikoan (MFren autonomia eta indepentzia bermatzeko) eta hori da aurreproiektuaren helburua. Hala ere, aurreproiektuak ez dauka inolako azken xedapenik jasotzen duena EKren 24. artikulua erreforma. Azken honetan jarduera batasunaren eta menpekotasun hierarkikoaren printzipioak arautzen dira eta ezartzen da Estatuko Fiskal Nagusia Erregeak izendatuko duela, Gobernuak proposatuta eta behin Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra entzun dela.

⁷⁷ Honako esteka honetan eskuragarri: <http://cadenaser00.epimg.net/descargables/2020/11/18/6863d1cece84cc8050fe39a22934bd93.pdf> (azken kontsulta: 2020-04-24)

⁷⁸ Honako esteka honetan eskuragarri: https://confi legal.com/wp-content/uploads/2018/05/20110728_ANTEPROYECTO-DE-LECRIM-DEL-PSOE.pdf (azken kontsulta: 2020-04-25)

⁷⁹ ASLA Aitzol y PELÁEZ Aitor. "Virtudes y carencias del Anteproyecto de la LECRIM", *LegalToday*, 2021. Honako esteka honetan eskuragarri: <https://www.legaltoday.com/opinion/la-cara-y-la-cruz/virtudes-y-carencias-del-anteproyecto-de-la-lecrim-2-2021-01-19/> (azken kontsulta: 2020-04-25)

Zaila izango litzateke MF jarduera batasun eta menpekotasun hierarkikorik gabe funtzionatzea edo etorkizuneko fiskal ikertzaileak epaile baten independentzia izatea. Baina lortu behar dena da Estatuko Fiskal Nagusiaren izendapena fiskalen esku uztea eta honen hautapena afiliazio politikorik gabeko fiskalen artean egitea, eta baita aurretiaz kargo publikoaren baten izendatuak ez izana. Baldintza hauek beteta, autonomia bermatuko da bere funtzionamenduan, eta horrez gain, inpartzialtasun itxura emango da, garrantzitsua dena MFren osperako eta hiritarren lasaitasunerako.

Instrukzioaren inguruko erreformaz gain, 2020ko aurreproiektuak bestealiko aldaketa batzuk dakar berekin. Alde batetik, egitura aldatetekin zigor prozesuan esku hartzen dutenen bermeak ere indartzen dira, eta arreta berezia jartzen zaio biktimaren figurari. Biktimak bere estatutu propioa izango du, babes neurri zabalekin, eta adingabeena eta ezgaiena ere ahaztu gabe.

Era berean, berariaz sartzen da aukera-printzipioa, 2011ko eta 2013ko aurreproiektuetan ere jaso zena. Printzipio horrek politika kriminaleko irizpideak jasotzen ditu, kasu zehatzean zigorra ezartzeko beharrik ez izatean edo hura murrizteko marjina oinarrituta.

Azkenik, azpimarragarriak dira, halaber, krimenaren aurkako ikerketa-teknika aurreratuenak sartu izana, eta erregulazio espezifikoa eman zaie hainbat alderdiri, hala nola DNari, proba zientifikoari, datuen tratamendu automatizatuari eta bilaketa adimendunei, ingurune digitaletan ezkatututako ikerketei edo bide telematikoz salatzeko aukerari.

Hala ere, uste dut beharrezkoa izango litzatekeela aurreproiektu berri honekin batera Estatuko Fiskaltza Orokorra hautatzeko modua aldatzea eta MFEOn bestelako moldaketa batzuk egitea, autonomia eta independentzia bermatzeko (inolako kanpoko esku sartzerik gabe) Fiskalen jardunean, fiskalak izanik hautaketa egiten dutenak, eta horrez gain bere funtzioa eraginkortasunez aurrera eraman ahal izateko bitarteko pertsonal, material eta teknologiko egokiak ematea.

IV. FISKAL INSTRUKTOREA ZIGOR PROZESUAN ETORKIZUNERAKO

Esan bezala, eztabaida hau, MFri ikerketa penala ematearen inguruan edo gaur egungo sistema mantentzea, sakon eztabaidatu den gaia izan da. Urteetan zehar doktrinak aukera bat edo bestearen aldeko argudioak jorratu ditu, baina badaude erdiko jarrera hartu dutenak, hau da, haien ustez garrantzitsuena ez da nork ikertzen duen, Epailea edo Fiskala, baizik eta ikerketa hori zuzenbidezko estatu bati dagokion prozesuaren eskakizunekin bat etortzea⁸⁰.

Eredu baten edo bestearen printzipio konstituzionalen ikuspuntutik, Konstituzio Auzitegiak⁸¹ onartu du bien konstituzionaltasuna, EK-ak ez duelako instrukziorako erredu zehatz bat aurreikusi, baizik eta berme sistema bat. Beraz, Auzitegiak esaten duen moduan, legegileari dagokio erabakitzea zein den interes publikoak hobeto asetzen duen sistema, betiere, kaltetuak diren pertsonen oinarrizko eskubideak errespetatzen baditu. Konstituzio Auzitegiaren 41/1998 epaiaren arabera, instrukzio epaile pasiboaren erredua ere egokia litzateke. Honetan akusatzaileek proposatutako eginbideak erbakitzea mugatzen da epailea. Berme epailearen erredua ere eman daiteke, ez duena inolako ikerketarik aurrera eramaten eta bakarrik erbakitzen du kautela neurrien inguruan eta oinarrizko eskubide eta askatasunak eragozten dituzten eginbideak kontrolatzen ditu. Baina horrek ez du esan nahi gaur egun indarrean dagoen erredua ez denik egokia, zeinetan epaileak ikerketa penala zuzentzen duen. Jarraian erredu bat zein bestea argudiatzeko erabili izan diren arrazoiak azalduko dira.

4.1. Instrukzio funtzioaren aldeko argudioak

⁸⁰ LANZAROTE MARTÍNEZ, Pablo. *La autonomía del Ministerio Fiscal en el proceso penal y la reforma de su estatuto orgánico*, La ley, Madril, 2008, 138. or.

⁸¹ KAE 41/1998, 1998ko otsailak 24: "(...) El art. 24 de la Constitución no impone un único sistema para la persecución de los delitos, y para evitar la apertura de juicios orales por acusaciones sin fundamento. El modelo del Juez de instrucción pasivo, que se limita a acordar las diligencias que proponen los acusadores o, en su caso, las defensas, que propugna la demanda del actor, podría perfectamente ser uno de ellos. Como también podría serlo el del Juez de garantías, que no lleva a cabo ninguna investigación, limitándose a decidir sobre medidas cautelares y a controlar las diligencias que interfieren derechos y libertades fundamentales. Mas también se ajusta a la Constitución el modelo vigente, en el cual es el Juez quien dirige la investigación criminal, que no ha sido modificado ni por la Constitución ni por la Ley Orgánica 7/1988 (STC 32/1994, fundamento jurídico 3º). La opción entre estos, u otros, modelos de justicia penal corresponde al Legislador, que puede configurar el sistema que resulte más conveniente para la satisfacción de los intereses públicos, siempre que respete los derechos fundamentales de las personas afectadas (...)"

Zuzenbide konparatuan jada ezarrita dago eredu hau, hala nola, Portugalen, Frantzia, Alemanian... Hori dela eta, autore gehienak honetan oinarritu dira haien iritzia argudiatzeko. Hala ere, askotan kritikatu izan da epaile instruktorearen lana, modu honetan, MF instruktorearen alde eginez.

Oro har, honako hauek dira instrukzio judizialaren hutsuneak edo akatsak: haren izaera inkisitiboa, epaileak inpartzialtasuna galtzea, eginkizun hori betetzeko geldotasun judiziala eta politika kriminal koherentea garatzeko ezintasuna⁸².

Lehenik eta behin, doktrina pro-fiskalista printzipioen ikuspegitik abiatzen da. Zentzu honetan, baieztatzen da egitateen ikerketa MFri esleitzeak akusazio printzipioa indartzea dakarrela, instruktorearen "inkisizio-jarduera" dela eta.

Ministeritza Fiskalari ikerketa ofiziala esleitzeko behin eta berriz erabili den argudioa izan da akusazio printzipioarekin erlazionatuta dagoena. Helburu horretarako, esan ohi da, ikuspegi negatibo batetik, instrukzio judiziala inkisitiboa dela, eta ikuspegi positibo batetik, MF ikertzailearen ereduak suposatzen duela akusazio printzipioa eramatea instrukziora, hau da, prozesu penalaren fase guztietan akusazio printzipioa egikaritzea.

MFri aurretiazko prozeduraren esleipena defendatzeko, honako hau argudiatzen da: ahozko fasean akusazio printzipioak ezartzen du beharrezkoa dela bereiztea akusazioa egingo duen subjektuaren eta erabakiko duen subjektuaren artean, hori dela eta, ez dator ideia horrekin bat bi funtzio horiek (errekerimendua eta erabakitzea) estatu organo bakar bati ematea prestaketa prozeduran zehar⁸³.

Aztertu ahal izateko argudio hau, beharrezkoa da ezartzea zertan datzan akusazio printzipioa. Konstituzio Auzitegiaren arabera, akusazio-printzipioak inpartzialtasun judizialaren alderdi zehatz bati erantzuten dio, eta honako ezaugarri hauek ditu⁸⁴:

⁸² CABEZUDO RODRIGUEZ, Nicolas. "Sobre la conveniencia de atribuir la instrucción penal al Ministerio Fiscal", *Revista jurídica de Castilla y León*, 14. zk., 2008, 195. or.

⁸³ MARTÍN PASTOR, Jose. *El Ministerio Fiscal como director de la investigación oficial en el proceso penal*, Publicaciones del Real Colegio de España, Madril, 2005, 357-358. or.

⁸⁴ KAE 277/1994, 1994ko urriak 17: "(...) En efecto, ha de recordarse que el principio acusatorio "forma parte de las garantías sustanciales del proceso penal incluidas en el art. 24 C.E." (STC 83/1982). Principio que ha sido consagrado por el art. 24 C.E. "en todos los procesos penales" (STC 11/1992) y, además, que "debe mantenerse en cada una de las instancias" (STC 83/1983). Y en su virtud, "nadie puede ser condenado si no se ha formulado contra él una acusación de la que haya tenido oportunidad de defenderse de manera contradictoria" (STC 11/1992, con cita de las SSTC 17/1988, 168/1990 y 47/1991). Pues el derecho a ser informado de la acusación "es indispensable para poder ejercer el derecho de defensa" en el proceso penal (STC 141/1986) y su vulneración puede entrañar un resultado material de indefensión prohibido por el art. 24.1 C.E. (SSTC 9/1982 y 11/1992). (...) si la fase instructora exige como presupuesto ineludible la existencia de una noticia criminis y conduce a la investigación de unos concretos hechos y la participación en ellos de unas personas determinadas (arts. 299 y 300 L.E.Crim.), el Juez de Instrucción no puede, "mediante el retraso de la puesta en conocimiento de la acusación (esto es, del hecho punible objeto de las diligencias previas), eludir que su sujeto pasivo asuma el status de parte procesal tan pronto como exista dicha imputación en la instrucción, efectuando una investigación sumarial a sus espaldas".

- 1) Instrukzio-organoaren eta epaia eman behar duen epailearen arteko aldea dela eta⁸⁵.
- 2) Kontuan izanda ez dagoela prozesurik (ahozko epaiketa) akusaziorik gabe, akusazio hori epaitu behar duena ez den beste pertsona batek egin behar du.
- 3) Akusazioaren edukia akusatzaileak finkatzen du, eta akusazioak prozesuaren objektua zehazten du. Bi elementu horiek mugatzen dute jurisdikzio-organoaren ebazpen boterea proiektatu ahal izateko eremua, eta organo horrek ezin du prozesuaren objektua gainditu, akusatuak ez diren beste egitate batzuegandik kondenatuz, edo akusatua ez den beste pertsona bat kondenatuz.

Bigarrenik, instrukzioko epaileak inpartzialtasuna galtzea da. Horren arabera, delituak ikertzeko eskumena MFri emanez gero, instruktoreak inpartzialtasuna galtzeko dituen arriskuak saihestu ahal izango liriateke; izan ere, organo berean delituaren ikerketa eta oinarrizko eskubideak mugatzen dituzten neurriak erabakitzea biltzen dira⁸⁶. Beraz, MF instruktorearen eredia ezarri gero, instrukzioko epaileen inpartzialtasuna bermatuko litzateke. Epailea prozesuaren objektuarekin zerikusirik ez duen hirugarren bat bezala kokatuta geratuko litzateke, alderdiek egindako eskaerak inpartzialtasun-posizio egoki batetik ebatziz, ez bakarrik subjektiboa, baita objektiboa ere.

Proposatzen den aldaketarekin, epaileak bere jarduna baloratzeari utziko lioke, beste pertsona batek egindako lana aztertzeko, eta inplikaturik dauden pertsona gutziak entzun ondoren; modu honetan, indartu egiten da ikerketa kriminelaren kontrol judizialaren eginbeharra. Hau da, Epaileak ez luke bere kabuz erabakiko, baizik eta hirugarren batek egindako eskaerari erantzun luke. Horrela, kontrola neurria hartu aurretik egingo litzateke, ezin izango litzatekeelako erabaki alde aurreko baimen judizialik gabe.

Edozein funtzionario publiko bezala, epaileak ez du izan behar inolako interesik prozesuan (zuzena ezta zeharkakoa), hau da, interes eza subjektiboarekin jardun behar du. Hala ere, Instrukzio-epailearen figuraren arauketa funtzionalak, objektiboki, epaile eta alderdi gisa kokatzen du, hari dagokiolako ikerketa bat zuzentzea eta, aldi berean, kontrolatzea.

Instrukzio-epaileak ahalmena dauka zenbait erabaki ofizios hartzeko, eta erabaki horiek berekin dakarte aurretik garatutako jarduketan egokitasun juridikoa alde aurretik baloratzea. Eta balorazio hori, hain zuzen ere, baloratu beharreko aurretiazko jarduerak adostu dituenak egiten du. Ondorioz, instrukzio-epailea posizio jakin batean kokatzen da, eta horrek, ezinbestean, prozesuaren subjektu pasiboarengan honako pertzepzio hau sor

⁸⁵ KAE 60/1995, 1995ko martxoak 17: "(...) El mismo Juez que ha decretado el internamiento provisional, que ha decidido señalar la comparecencia, que ha valorado en varias ocasiones las pruebas practicadas, como indicamos antes, y que ha resuelto abrir la audiencia, no se encuentra en condiciones objetivas de imparcialidad para dictar "resolución". En este sentido, la determinación de que sea el mismo Juez que ha intervenido en la instrucción el que deba resolver el caso es contraria al derecho que consagra el art. 24.1. C.E."

⁸⁶ CABEZUDO RODRIGUEZ, Nicolás. "Sobre la conveniencia de atribuir la instrucción penal al Ministerio Fiscal", *Revista jurídica de Castilla y León*, 14. zk., 2008, 197. or.

dezake: ez dagoela bermerik pentsatzeko balorazio hori ez dagoela baldintzatuta alde aurretik parte hartzeagatik, froga-iturriekin duen zuzeneko harremanean oinarrituta.

Epaile batek bere gain hartzen baditu egitate zigorgarriak argitzeko eginkizuuna eta erantzuleen erruduntasuna zehazteko eginkizuna, argi dago “kutsatu” egiten dela, eta ondorioz, inpartzialtasuna galtzen duela. Hori dela eta, ezingo du, besteak beste, ahozko epaiketaren fasea ezagutu eta epaia eman⁸⁷.

Modu honetan, babestuko litzateke instruktorearen inpartzialtasuna, ikerketa eta kautela neurriak hartzearen erabakia bereiziko liritekeelako. Planteatzen dena ez da MFk eramatea insktrukzio jarduera osoa, baizik eta bakarrik ikerketa zuzentzea, Epailea izanda kautela neurriak hartzen dituena.

Akusatu ez ezik, ikertu ere egin duen fiskal batek akusazio publikoa sostengatzera mugatzen den fiskal bat baino askoz ere inplikatuago dago auzian⁸⁸.

Hala ere, kontu hau beste ikuspegi batetik hartu daiteke, kontuan hartzen badugu MONTERO AROCA-k emandako kontzeptua inpartzialtasunari buruz: “exigencia de desinterés subjetivo en la persona determinada que ha de conocer de un caso concreto para adoptar en él la necesaria decisión”⁸⁹.

Ikuspegi honetatik, inpartzialtasuna aldarrikatu ahalko litzateke epaileei, fiskalei zein beste edozein funtzionario publiko, eta nekez konprometituko litzateke inpartzialtasun hori, salbu eta ulertzen badugu prozeduran alde aurretik esku hartzeak *per se* baldintzatuko lukeela interes subjektibo bat agertzea, eta, beraz, onartezina izango litzatekeela auzian; kasu horretan, beharrezkoa izango litzateke epaile instruktorearen eta berme epailearen arteko bereizketa, zein MF instruktorearen eta MF akusatzailearen artekoa⁹⁰.

Zentzu berean, BURGOS LADRON DE GUEVARAK adierazi du delituaren ikerketa Fiskaltzaren esku uztean epailearen independentzia babesten dela, eta ez dela kutsatzen haren inpartzialtasuna eta alderdien eskubideak bermatzeko duen funtzioa⁹¹.

Hirugarrenik, instrukzio judizialaren geldotasuna aldarrikatzen da. Urteetan zehar hainbat erreforma partzial egin dira zigor prozeduraren legean justiziaren arintasuna lortzeko eta hau modu eragokinkor batean funtzionatzeko, luzeak diren izapideak baztertu ahal den neurrian.

⁸⁷ GARBERÍ LLOBREGAT, José. “¿Fiscal instructor?...”, *op. cit.*, 179. or.

⁸⁸ DÍAZ-PICAZO GIMÉNEZ, Luis Maria. “La posición del Fiscal en la investigación penal: La reforma de la Ley de Enjuiciamiento Criminal”, *La Ley*, 3. zk., 2005, 93. or.

⁸⁹ MONTERO AROCA, Juan. “Investigación e instrucción en el proceso penal”, *Teoría y derecho: revista de pensamiento jurídico*, 1. zk., 2020, 55. or.

⁹⁰ CABEZUDO RODRÍGUEZ, Nicolás. “Sobre la conveniencia de atribuir la instrucción penal al Ministerio Fiscal”, *Revista jurídica de Castilla y León*, 14.zk., 2008, 198-199. or.

⁹¹ BURGOS LADRÓN DE GUEVARA, Juan. “La reforma del proceso penal español en el anteproyecto de la LECR de 27 de julio de 2011”, *Revista de Diario La Ley*, 7939. zk., 2012, 87. or.

Puntu honetan argudiatzen dena da MFri instrukzio eskumenak emateak arindu eta sinplifikatuko lukeela organo jurisdikzionalen eskuetan geldo ibiliko litzatekeen izapideren bat. Ulertu behar da luzapen hori justifikaziorik gabekoa dela eta gainera, arrazoizkotzat jotzen den -hilabeteko epea- epetik harago luzatzen dela (PKL 324. art.)

Instrukzio-atzerapen hori, epaileei beraiei egotz dakieke zuzenean, eta bereziki, haien zehaztasun asmoari edo Poliziarekin alderatuta prestakuntza ikertzaile eskasa izatea. Instrukzio fiskalaren sinpletasun hura jarduera-batasunaren printzipioarekin eta Audientzia desberdinetako Fiskaltzen arteko lankidetzarekin lortuko litzateke.

Argudio eztabaidagarriena erreforma proposamenari egiten zaion kritikari erantzuten diona da: botere exekutiboaren menpekotasuna. MF instruktorearen aldekoek ez dute eragozpen bat ikusten hemen, beste abantaila bat baizik. Horrela, Botere exekutiboaren eta Fiskalen arteko harreman hobearen ondorioz, politika kriminal egokia aplikatzea bultzatuko litzateke. Era berean, autore hauek nabarmendu dute mendekotasun hierarkikoaren eta jarduera-batasunaren printzipioak ez direla inoiz legezkotasun- eta inpartzialtasun-printzipioen gainetik egongo⁹².

Azkenik, politika kriminal koherentea garatzeko ezintasuna argudiatzen dute MF instruktorearen aldeko autoreek.

Instrukzioak jurisdikzio-esparrutik kanpo dauden beste jarduketa asko biltzen ditu. Jakina, kautela-neurri pertsonalak hartzea, froga alde aurretik gauzatzea edo oinarrizko eskubideak murriztea edo kentzea dakarten eginbideak agintaritzaren judizialari esleitu beharko zaizkio, baina ez nahitaez ikerketaren epaile bati, baizik eta epaiketaren aurreko jarduketek irauten duten bitartean alderdien eskubideen defendatzaile den epaile bati. Jakina denez, ez du zentzurik delitu-egitate baten ikerketan zehar egin beharreko jarduera guztia organo berari esleitzeak, jarduketa bakoitzaren izaera kontuan hartu gabe. Epaileak fiskalak egindako egintza prozesalen legezkotasuna kontrolatu beharko luke, epaileak instrukzioan bete behar duen zeregina alderdien eskubideak bermatzea delako, bereziki prozesuaren subjektu pasiboaren eskubideak. Modu honetan indartu egiten da inpartzialtasun judizialaren printzipioa eta hobeto aplikatzen da Botere Judizialaren aldetik jurisdikzio-esklusibotasunaren printzipioa⁹³.

Beraz, esan daiteke MFri esleitzean ikerketa, Instrukzio epailea, berme epaile bihurtzen dela, erabat inpartziala⁹⁴. Honek esan nahi du ez dela epailearen figura kendu nahi, baizik eta instrukzio epailearen inpartzialtasuna bermatzea lortu nahi da eredu

⁹²ESPINA RAMOS, Jorge Angel. *La instrucción por el Ministerio Fiscal: la reforma eternamente pendiente*, Lex Nova Editorial, Valladolid, 2008, 416-417. or.

⁹³ MORENO CATENA, Victor. "El proceso penal español. Algunas alternativas para la reforma", *Consejo General del Poder Judicial*, 4. zk., 2002, 36-37. or.

⁹⁴ ASENCIO MELLADO, Jose María. *Derecho procesal penal*, Tirant Lo Blanch, Valentzia, 2019, 46. or.

aldaketa honekin, eta horrekin batera, prozesuaren parte direnen oinarrizko eskubideak hobetzea.

Behin ikusita zeintzuk diren aldeko argudioak uste dut erreforma hau aurrera eramateak aurrerapen handia izango lizatekeela, batez ere aztertzen ari garen gaiaren inguruan, hau da, MFri ikerketaren zuzendaritza esleitzea, horrek gure herrialdean justiziaren praktika hobetuko lukeelako, prozesu arinagoekin eta eraginkorragoekin, eta hiritarren oinarrizko eskubideak guztiz babestuta egongo lirateke. Horrez gain, Europako bestelako herrialdeetan dagoen ereduarekin parekatuko ginатеke, antza denez herrialde bakarra garelako akusazio printzipio mixtoa nagusi den zigor prozesu sistema duena, instrukzio epailearen eta fiskalaren parte hartzearekin ikerketa fase berean.

4.2. Instrukzio funtzioaren kontrako argudioak

Behin aztertuta zeintzuk diren Fiskal instruktorearen eredia ezartzeak ekarriko lituzkeen abantailak eta honek beteko lituzkeen funtzio mugatuak, mendekotasun hierarkikoaren printzipio organikoa mantenduz, ikusiko beharko da eredu honek beste mota bateko onurak ekarriko dituen, hau da, prozesu penalaren gaur egungo egoera hobetuko lizatekeen edo ez.

Esan bezala, erreformaren aldeko autoreek honako hau mantentzen dute: Lehenik eta behin, instrukzioko epailearen inpartzialtasuna bermatuko lizateke (edo etorkizuneko berme epailearena). Bigarrenik, zigor prozesuaren instrukzio fasea arinuduko lizateke. Hirugarrenik, akusazio printzipioa indartuko lizateke.

Lehenengoari dagokionez, egia da instrukzioa egiten duen epailea kutsatu egiten bada bere inpartzialtasuna galduz, eta bere ustean aurreiritzi bat sortzen bada inputatuaren ustezko erruduntasunari eta instrukzioaren objektu diren egitateen tipikotasunari buruz, epaile hori ez dela konstituzionalki egokiena izango, aipatutako inpartzialtasunaren ikuspuntutik, errudun horren behin behineko espetxeratzea erabakitzeke edo erabakitzeke bere kontra ahozko epaiketa ireki behar den edo ez. Printzipioz, erantzuna epaile hori egokia ez dela izan beharko lizateke⁹⁵.

Hala ere, badaude bi arrazoi pentsatzeko fiskal instruktoreak ez lukeela modu egokian konponduko azaldutako arazoa:

- 1) Hasteko, nahiz eta MFri eman beharreko funtzioak ikerketa penala gauzatzeko ez duten bere inpartzialtasuna baldintzatuko, horrek ez du esan nahi ez dagoenik oraindik Botere Exekutiboaren menpe, eta horrek partzialtasun susmoa sortzen du. Modu honetan, nahiz eta teknikoki inpartziala ez den epailea kendu, soziologikoki inpartziala ez den Ministeritza Fiskal batera pasako ginатеke.

⁹⁵ GARBERÍ LLOBREGAT, José. “¿Fiscal instructor?...”, *op. cit.*, 179. or.

- 2) Bigarrenik, egungo instrukzio epailearen partzialtasuna konpondu daiteke arazorik gabe MF instrutorearen figura ezarri gabe. Nahikoa izango litzateke kautela neurriak hartzeko eta prozesua largesteko eginkizunak, edo ahozko epaiketa irekitzeko erabakia instrukzio fasea aurrera eraman ez duen instrukzio epaile bati ematea, inpartzialtasun akats hori desagerrarazteko⁹⁶.

Bigarren argudioari dagokionez, esaten da Ministeritza Fiskal instruktorearen eredia ezartzeak instrukzio penalaren fasea arinduko lukeela.

Erabiltzen den argudioa honako hau da: MF ikerketa penalaren zuzendaria izango balitz, instrukzio fasea arinduko litzateke, fase horrek ahozko epaiketa irekitzeko oinarriak betetzen diren ala ez erabaki besterik ez bailuke egingo, eta ez luke zertan zehatza izan beharrik, gaur egungo Instrukzioko epaileak bezala, ikerketa eginbide posible guztiak agortzeko joera dutenak, sumarioa errebokatze aukera ekiditeko.

Alabaina, aurreko atalean aztertutako moduan, instrukzio fasearen laburpena bestelako neurriak hartuz ere lor daiteke:

Lehenik eta behin, fiskal instruktorea bere ikerketan zehatza ez dela izan behar ez da egia. Izan ere, erreformaren aldekoek diote Ministeritza Fiskal instruktorea behartuta dagoela joera egozgarria duten ikerketa eginbideak erabakitzera zein joera errugabetzailea dutenak erabakitzera. Beraz, inpartzialtasun estatus horrek etorkizuneko MF instruktorea bere ikerketan zehatza izatera behartuko luke; izan ere, ahozko epaiketaren irekiera baldintzatzen duten elementuak zein auzia largestea ahalbidetzen dutenak bildu beharko ditu, eta ezingo da konformatu emaitza inkriminatzailea duen eginbide bat egitearekin, bista irekitzeko.

Bigarrenik, neurri egokiena prozesu penalaren instrukzio fasea laburtzeko, gehienezko iraupen epeak ezartzea da, eta behin epe horiek igarota prozesuaren artxibatzea agintzea. Gogoratu behar da epaileak eta magistratuak independenteak direla, baina ez legearekiko independenteak, baizik eta legearen mende daudela erabat (EKren 117.1 art.); horregatik, legegileak instrukzio judizialari gehieneko iraupen-epeak ezartzen badizkio, epe horiek bete egin beharko dira, besterik gabe⁹⁷.

Erreformaren aldeko autoreek erabiltzen duten hirugarren argudioa da MF instruktoreak akusazio printzipioa indartuko duela. Izan ere, ez dituen frogak egintzak sortzen (independentzia falta dela eta), amaituko lirateke ahozko bistan erreproduzitutako frogetan oinarritzen diren kondenak dituzten prozesu penalak.

⁹⁶ Ibidem, 180. or.

⁹⁷ Ibidem, 181. or.

Hala ere, MF esku egongo litzatekeen etorkizuneko instrukzioan ez da zertan desagertu behar aurretiazko sumario froga, bereziki froga iturriak desgertzeko arriskua dagoen kasuetan, ahozko epaiketaren hasierara arte itxaron behar denean⁹⁸.

Egungo instrukzio judizialaren sistema mantentzeko gehien erabili ohi diren argudioak honela labur daitezke⁹⁹:

- a) Lehenik eta behin, instrukzio-fasearen jurisdikzio-izaera aipatzen da. Fase horretan, egitateak argitzera eta autoreak aurkitzera bideratutako ikerketa-egintzez gain, eskusiboki jurisdikzionalak diren beste jarduketa batzuk ere sartzen dira, oinarrizko eskubideak mugatzen dituzten neurriak hartzea edo kautela neurriak erabakitzea dakartenak barne, bai eta aurrez egiten diren beste batzuk ere, frogak aurreratzeko ezin direlako ahozko epaiketaren egintzan errepikatu eta beharrezkoa denean, auzitegiak baloratu ahal izateko, ikerketa fasean egitea inpartzialtasuna eta independentzia duen organo batek. Hori dela eta, MFk ezingo luke hauek gauzatu, prozesuan alderdi posizioa duelako formalki, nahiz eta inpartzialtasun printzipioaren menpe egon.
- b) Sumarioaren instrukzioak ere barne hartzen ditu, ikerketa egintzez gain, balorazio eta epaiketa funtzioen garapena, egitateen neurketa eta egoeren balorazioa erabakiak hartzeko. Jarduera hau guztiz jurisdikzionala da, hori dela eta ezingo litzateke Ministeritza Fiskalari esleitu, ez duelako epaitzeko eta epaitutakoa betearazteko ahalmena, funtzio hau eskusiboki jurisdikzionala delako. Hala ere, ez litzateke arazorik egongo Ministeritza Fiskalak funtzio jurisdikzionalaren egikaritzea behar ez duten erabakiak hartzeko, organo egokia delako kontuan hartuta bere jarduera legaltasun eta inpartzialtasun printzipioen menpe egon behar dela.
- c) Ministeritza Fiskalaren antolaketa hierarkikoa eta bere dependentzia Botere Exekutiboarekiko da beste arrazoietakoa bat MF instrukzioaren eredia ukatzeko, bere inpartzialtasuna zalantzan jarriz.
- d) Azkenik, argudiatzen da MFri esleitzeak ikerketa kriminalaren zuzendaritza berekin ekarriko duela egitura aldaketak zein instituzionalak. Horrela, beharrezkoa izango litzateke MFEO sakonki aldatzea bere autonomia indartzeko, Estatuko Fiskal Nagusiaren lotura Gobernuarekiko hautsiz. Eta bestalde, MFren plantilla organikoaren gehikuntza eta lurralde birbanaketa, pere presentzia bermatzeko nazio lurraldearen edozein puntutan.

⁹⁸ Ibidem, 182. or.

⁹⁹ LANZAROTE MARTÍNEZ, Pablo. *La autonomía del Ministerio Fiscal en el proceso penal y la reforma de su estatuto orgánico*, La ley, Madril, 2008; 139, 140, 141. or.

Laburbilduz, esan dezakegu MF instruktoreak abantaila gutxi dituela, ez dituelako modu egoki batean konpontzen instrukzioko epaileak dituen inpartzialtasun akatsa eta ez duelako bermatzen prozesu penalaren instrukzio fasea azkarragoa izango denik modu honetan ezta akusazio printzipioa indartuta geratuko denik. Gainera, “abantaila” hauek, aurretik esan bezala, bestaleko neurri batzuekin ere lor daitezke, leunagoak direnak, hala nola, sumarioen iraupenerako gehinezko epe legalak ezartzea.

Era berean, eragozpen handia dakar Fiskal instrukorearen ezarpena. Izan ere, gobernuaren menpe dagoen MFak partzialtasun susmo orokorra sortzen du. Hau da, Fiskal instruktorea jarraituko duela botere exekutiboaren menpe.

V. ONDORIOAK

1. Egungo zigor prozesuan ezarrita dagoen eredia aldatzeko ideia urte askotan zehar egon da indarrean eta eredu hori saiatu da aldatzen erreforma ezberdinen bidez, arrakasta izan ez dutenak, MFk instrukzio funtzioa bere gain hartzeko. Uste dut beharrezkoa dela PKLren erreforma egitea eta eredu guztiz berri bat ezartzea. Izan ere, egungo gizarteak beharizan berriak ditu eta horietara egokitu behar da legea, oraingoa zaharkitua geratu delako.

2. Aurkeztu diren 2011ko Aurreproiektua eta 2013ko Prozesu Penalerako Kodearen Zirriborroa hutsune asko izan dituzte eta ez dute modu egokian konpontzen dauden arazoak eta eztabaidak, horregatik ez dute aurrera egin. Horregatik, 2020ko aurreproiektuak arrakasta edukitzeko beharrezkoa litzateke Estatuko Fiskal Nagusia hautatzeko modua aldatzea eta MFEOn aldaketak egitea. Proposamen bat izan daiteke EFN Gobernutik aske geratzeko eta MF modu guztiz independentean jardun ahal izateko Gobernuak proposatutako hautagaia Kongresuaren 3 /5 izatea, mandatu 5 urtera luzatzea eta kargu hau ez amaitzea hautagaia proposatu zuen Gobernuak amaitzen denean, baizik eta 5 urteko epea igaro arte.

Gainera, nire ustez fiskalek epaile eta magistratuek duten babes bera izan beharko lukete eta beraien erabakietan hierarkikoki inoren menpe ez egotea, horrela interes publikoa babestuko litzateke ere.

3. Gaur egun, ikusi dugun bezala, badaude MFk instrukzioaren arduradun izatearen aldeko jarrerak, eta ondorioz, Epaile Instrukzioaren figura ezabatzea nahi dutenak. Hala ere, Instrukzio Epaileak duen abantaila bat da independentziarekin jarduten duen organoa dela, beraz, kontrako zentzuan esan dezakegu MFren gain eragina izan dezakeela Botere Exekutiboak. Egoera hau arriskutsua izan daiteke eta zaila egin daiteke egoera guztietan ikerketa objektibo eta inpartzial bat bermatzea, bereziki gobernuan dagoen alderdi politikoaren interesak jokoan dauden egoeretan edo garrantzi politikoa duten subjektuak daudenean inplikaturik. Bestalde, ezin dugu ahaztu MFri instrukzioa esleitzeak Ministeritza Publikoa bihurtu dezakeela epaile moduko batean eta alderdi batean, akusazioa egikaritu behar duelako eta aldi berean ikerketa aurrera eraman. Beraz, honen konponbidea ere izango litzateke aurreko puntuan aipatutako EFN izendatzeko moduaren erreforma.

4. Hala ere, aztertu dugun moduan, MFri instrukzioa emateak baditu abantailak, hala nola eraginkortasun eta barne-koherentzia handiagoa emanta prozesuari. MF izanda ikerketa egingo duena instrukzio-eginbideak bikoiztea ekidituko dira, eraginkortasun handiagoa lortuz, arintasuna lortzeaz. Baita barne-koherentzia handiagoa; izan ere, MFren funtzioa bada erabakitzea zigor akzioa egikaritzea edo ez, berari dagokio egitateak guztiz ikerketzeko ahalmena eta erabakitzea egitate horiek zigorgarriak diren. Epailea bitartean

jarrera inpartziala hartuko du eskubideak mugatu nahi dituzten eskaeren inguruan erabakiz. Gainera, instrukzio epaileak ez du inpartzialtasuna nire ustez, bera delako ikerketa egiten duena eta era berean erabakitzen duena, horregatik interesa du ez botatzeko atzera berak egindako jarduketak eta ondorioz, ikertuaren aurka egin dezake.

5. MFri zigor prozesuaren ikerketaren zuzendaritza ematea, aurretik epaile eta magistratuen bermeak eman gabe, hala nola independentzia edo mugiezintasuna, Konstituzioaren aurkako egintza litzateke. MF, gaur egun, legezotasun- eta inpartzialtasun-printzipio funtzionalek eta printzipio organikoek (jarduera-batasuna eta mendekotasun hierarkikoa) informatzen duten moduan, ez da organo egokiena prozesuen instrukzio penala egiteko. Proiektuak hutsuneak ditu, batez ere, Botere Exekutiboarekiko mendekotasun-harremanean; zehazki, EFNren izendapenean, Gobernuak proposatuta. Beraz, MFri ikerketa kriminalaren zuzendaritza emateko ideia, gutxienez, Konstituzioarekin bateragarria izan dadin, MFEOren erreforma ez ezik, EKren erreforma ere egin beharko litzateke. Hala ere, aurreproiektuak ez du horren berri ematen, eta ondorioz, Gobernuak ez du asmorik edozein lege-aldaketa egiteko eta, are gutxiago, konstituzio-erreforma bat egiteko; horrela, Fiskal instruktorearen eredia ezarri nahi da, haren egitura eta funtzioak aldatu gabe.

6. Nahiz eta PKL erreformatzeko premia dagoela uste dudana, Adingabeen prozesuan izandako esperientziak hainbat kontu erakutsi ditu, hala nola fiskalak ezin dituela egin ikerketa penal bati dagozkion jarduera guztiak bere kabuz eraman, ez ditu behar diren bermeak; beraz, epailearen esku geratzen da arau-hauslearen oinarrizko eskubideei eragiten dieten erabakiak hartzea. Bestalde, erreforma horrek eragingo lituzkeen beharrei aurre egiteko fiskalen kopurua falta da. Fiskalak falta dira, eta egin beharreko lan berriei aurre egiteko behar den prestakuntza ere.

7. Orain arte egin nahi izan diren erreformekin eta aurreproiektuekin Epaile instruktorearen eredia kendu nahi izan da eta horren ordez Fiskal instruktorearen figura ezarri. Baina horrekin batera, ideia ona iruditu zait dela Berme Epaileren figura sortzea oinarrizko eskubideak mugatzen dituzten ikerketa neurrien inguruan erabakiz berak, horiek babesteko helburuarekin. Beraz, kontuan izanda nire ustez beharrezkoa dela PKLren erreforma, fiskal instruktorearen ereduaren alde nago, beti ere, honek dituen funtzioak zeintzuk diren argi zehaztuz eta Berme epailearen figura ezarriz MFren jarduketan kontrola eramateko eta arbitrariotasuna ekiditzeko.

VI. BIBLIOGRAFIA

6.1 LIBURUAK ETA ALDIZKARIAK

DE LA OLIVA SANTOS, Andrés. *Derecho procesal penal*, Editorial Universitaria Ramon Areces, Madril, 2007.

GARCÍA-PANASCO MORALES, Guillermo. *La reforma del proceso penal: hacia un verdadero modelo de fiscal investigador*, TFG tesis doctoral, Universidad de las Palmas de Gran Canaria, 2016.

LANZAROTE MARTÍNEZ, Pablo. *La autonomía del Ministerio Fiscal en el proceso penal y la reforma de su estatuto orgánico*, La ley, Madril, 2008.

GIMENO SENDRA, Vicente. “El proceso penal de menores”, *Diario La Ley*, 5386. zk., 2001.

GIMENO SENDRA, Vicente. *El Ministerio Fiscal-director de la instrucción*, Iustel, Madril, 2006.

MARTÍN SANCHEZ, Ascension. *El juez de menores en la Ley Orgánica 5/2000, de 12 de enero, de responsabilidad Penal de los Menores*, Estudios jurídicos del Ministerio Fiscal VI, Ministerio de justicia-CEJAJ, Madril, 2000.

GONZÁLEZ-CUELLAR SERRANO, Nicolás. *Proporcionalidad y derechos fundamentales en el proceso penal*, Constitución y leyes, Colex, Madril, 1990.

MUERZA ESPARZA, Julio Javier. *El proceso Penal Abreviado*, Aranzadi, Nafarroa, 2002.

LEAL MEDINA, Julio. “Un estudio sobre el anteproyecto de ley enjuiciamiento criminal. Un nuevo proceso penal”, *Docta ignorancia digital*, 4. zk., 2013.

LÓPEZ ORTEGA Juan Jose y RODRIGUEZ FERNANDEZ Ignacio. “El proceso penal como sistema de garantías (I)”, *Diario La Ley*, 8077. zk., 2013.

LÓPEZ LÓPEZ, Enrique. “El nuevo proceso penal. La investigación del Ministerio Fiscal vs. abogado defensor: el juez encargado del control de la acción penal”, *Diario La Ley*, 7987. zk., 2012.

CABEZUDO RODRÍGUEZ, Nicolás. "Sobre la conveniencia de atribuir la instrucción penal al Ministerio Fiscal", *Revista jurídica de Castilla y León*, 14. zk., 2008.

MARTÍN PASTOR, José. *El Ministerio Fiscal como director de la investigación oficial en el proceso penal*, Publicaciones del Real Colegio de España, Madrid, 2005.

GARBERÍ LLOBREGAT, José. "¿Fiscal instructor?: pocas ventajas y un enorme inconveniente", *Revista jurídica de castilla y león*, 14. zk., 2008.

DÍAZ-PICAZO GIMÉNEZ, Luis María. "La posición del Fiscal en la investigación penal: La reforma de la Ley de Enjuiciamiento Criminal", *La Ley*, 3. zk., 2005.

MONTERO AROCA, Juan. "Investigación e instrucción en el proceso penal", *Teoría y derecho: revista de pensamiento jurídico*, 1. zk., 2020.

BURGOS LADRÓN DE GUEVARA, Juan. "La reforma del proceso penal español en el anteproyecto de la LECR de 27 de julio de 2011", *Diario La Ley*, 7939. zk., 2012.

ESPINA RAMOS, Jorge Angel. *La instrucción por el Ministerio Fiscal: la reforma eternamente pendiente*, Lex Nova Editorial, Valladolid, 2008.

MORENO CATENA, Victor. "El proceso penal español. Algunas alternativas para la reforma". *Consejo General del Poder Judicial*, 4. zk., 2002.

ASENCIO MELLADO, Jose María. *Derecho procesal penal*, Tirant Lo Blanch, Valenzia, 2019.

GRANADOS CALERO, Francisco. *El Ministerio Fiscal (del presente al futuro)*, Tecnos, Madrid, 1989.

ZARAGOZA AGUADO, Javier Alberto. "El Consejo Fiscal: reflexiones sobre su funcionamiento, composición y competencias", *Estudios Jurídicos*, 5. zk., 2000.

BEVAVENT CUQUERELLA, Davit. *La dirección de la investigación criminal por el Ministerio Fiscal en España: situación actual y reformas proyectadas*, Fe d'erratas, Madrid, 2014.

BASTARRECHE BENGOA, Tomás. "Jueces y Fiscales ante la instrucción. Cuestiones constitucionales", *Revista de Estudios Políticos* 160. zk., 2013.

GIMENO SENDRA, Vicente. *Introducción al Derecho Procesal*, Colex, Madrid, 2013.

MUÑOZ CALVO, Jose Luis. *La independencia del Ministerio Fiscal en España. Su problemática*. Instituto de Estudios Fiscales, Madril, 1983.

ORTELLS RAMOS, Manuel. "Nuevos poderes para el Ministerio Fiscal en el proceso penal: límites constitucionales y valoración político-jurídica", *Revista de Derecho Procesal*, 2. zk., 1990.

MORENO CATENA, Victor. *El Ministerio Fiscal, Director de la investigación de Delitos*, Teoría y Derecho, Valentzia, 2007.

GÓMEZ COLOMER, Juan Luis. "La fiscalía española, ¿debe ser una institución independiente?", *Teoría y Realidad Constitucional*, 41. zk., 2018.

MARTÍN OSTOS, José. "Reflexiones sobre la justicia penal en España", *Revista de derecho procesal*, 2. zk., 2012.

SANCHIS CRESPO, Carolina. *El Ministerio Fiscal y su actuación en el proceso penal abreviado*, Comares, Granada, 1995.

CONDE-PUMPIDO FERREIRO, Cándido. *El Ministerio Fiscal*, Aranzadi, Nafarroa, 1999.

ASLA Aitzol y PELÁEZ Aitor. "Virtudes y carencias del Anteproyecto de la LECRIM", *LegalToday*, 2021.

MUERZA ESPARZA, Julio. "Sobre el Anteproyecto de Ley de Enjuiciamiento Criminal de 2020", *LegalToday*, 2021.

6.2. LEGERIA

1978ko abenduaren 29ko Espainiako Konstituzioa

Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa Adingabeen Zigor Erantzukizun arautzen duena

Prozedura Kriminalaren Lege erreformatzeko 2011ko Aurreproiektua

2013ko Zigor arloko prozesu kodearen Zirriborrea

1882ko irailaren 14ko Errege Dekretua, Prozedura Kriminalaren Legea onartzen duena

Prozedura Kriminalaren Lege erreformatzeko 2020ko Aurreproiektua

6.3. JURISPRUDENTZIA

Konstituzio Auzitegiaren Epaiak:

KAE 145/1988, 1985eko uztailak 12.

KAE 41/1998, 1998ko otsailak 24.

KAE 277/1994, 1994ko urriak 17.

KAE 60/1995, 1995ko martxoak 17.

6.4. WEBGRAFIA

<https://www.abogacia.es/actualidad/noticias/para-cuando-la-nueva-ley-de-enjuiciamiento-penal-analisis-de-la-tension-secreto-publicidad-en-la-futura-instruccion/> (azken kontsulta: 2021-04-01)

<https://www.lawyerpress.com/2020/05/27/los-principios-de-actuacion-del-ministerio-fiscal/> (azken kontsulta: 2021-04-05)

<http://cadenaser00.epimg.net/descargables/2020/11/18/6863d1cece84cc8050fe39a22934bd93.pdf> (azken kontsulta: 2020-04-24)

<https://www.legaltoday.com/opinion/articulos-de-opinion/sobre-el-anteproyecto-de-ley-de-enjuiciamiento-criminal-de-2020-2021-01-21/> (azken kontsulta: 2020-04-26)

https://confilegal.com/wp-content/uploads/2018/05/20110728_ANTEPROYECTO-DE-LECRIM-DEL-PSOE.pdf (azken kontsulta: 2020-04-25)

<https://wcd.coe.int/ViewDoc.jsp?id=376859&Site=CM> (azken kontsulta: 2020-05-17)